

TOKIKOM

2023ko martxoa | 234. zenbakia

aita!

txorierr... ia

Fernanda Lahera

Etxean du aita



Txorierriko azken albisteak jaso nahi dituzu?



Bidali ALTA

747 406 561
telefono zenbakira

Izan zaitetz berriemate ere. Bidali zure argazki, bideo eta berriak.

Hilero lagun birentzako bazkaria zozkatuko dugu parte-hartzaileen artean (Baseri Antzokian).

-  4 Iritziak
-  5 Laburrak eta albisteak
-  12 Gurean izan da... Julen Axpe, furgonologista
-  14 Gaztea eta... Aitor Merodio, raperoa
-  16 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  18 Menditik patxadaz... Dorretxeak
-  20 Fernanda Lahera, Gerra Zibilaren biktima
-  24 Inkesta soziolinguistikoa
-  26 Derioko Aiartza basoa babestu nahian
-  28 Beldurrezko filma, autismoa agerian jartzeko
-  30 Pentsiodunak, borrokan
-  32 Emaus Fundazioa
-  33 Herbarioa... Hilerrililia
-  34 Teknologia... Material berriak
-  35 Hileko argazkia... Kolorea paisaian
-  36 Sukaldaritza
-  37 Denborapasa
-  38 Agenda



12 Julen Axpe, furgonologista



28 Pentsiodunak, borrokan



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



diruz lagundutako aldizkaria

aikor!
txorierriko aldizkaria

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarleen Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta eta Tximintx komunitatea)
944 523 447 / 688 864 135 / 747 406 561
aikortxori@aikor.com / www.aikor.eus



Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Maketatzailea eta erredaktorea: Gaizka Eguzkitza

Kolaboratzaileak: Iraide Juaristi, Oihana Astobieta, Jose Angel Mentxaka, Joanes Camara, Alex Albarrán, Xabier Díaz eta @txiribita_kosmetika

Zuzentzaileak: Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Kattalin Barcena (688 782 642)

Banaketa: Baires

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik

Denon bizitzak erdigunera

Goiz batean metroan nindoala, telefonoz hitz egiten ari zen ondoko emakumea. Beste aldean nor zegoen ez dakit, baina sumatu nuen etxe batean lan egiten zuen emakumea zela. Izan ere, nire ondoan eserita zegoenak ulertarazi nahi zion ez zegoela ondo etxe-ko ugazabak janaririk ez ematea eta haren plateretako apurrak jan behar izatea. Gorputzaldi txarra gelditu zaizu aurrekoa irakurrita?

Eztabaida potoloak eta begirada askotarikoak behar ditugu, bizitza guztiei sostengua emateko zaintza-sistema publiko eta komunitario bat eraikitzen has-teko.

DENON. Denon bizitzek dute balio bera, eta denok dugu zaintzarako eskubidea, baita zaintzeko ardura ere. Emakumeok sostengatzen dugu zaintza-sistema, eta, gainera, hainbat jatorritako emakumeok gara kasu askotan. Zaintza-banaketa demokratikoa eta parekidea behar dugu. Lan-arloan ere aitortu behar da zaintza-la-

netan diharduten emakumeek bizitza sostengatzeko egiten duten lana, bai sozialki, bai lan-baldintzak hobetzeari dagokionez.

BIZITZAK. Zaintza-sistemaren antolamenduaren erdigunean bizitzak egon behar dira. Zaintzaren beharrianak negozioa izateari utzi behar dio, izan ere, egun erabat pribatizatua eta merkantilizatua dagoen eremua da: haien lagunen artean negozioa banatzeko, administrazio publikoaren kudeatzaileek sare publikoa desegin dute, etxez-etxe-ko laguntza, zaharren egoitzak, osasungintza, bestelako gizarte-zerbitzuak... Logika merkantilistatik antolatu dute guztia, zaintzaren eta langileen lan-baldintzen kalterako. Sektoreko patronalak eta instituzioek urgentziaz hartu behar dute ardura, eta sektoreko hitzarmenak desblokeatu. Sektorea publiko bihurtzeko bidea hasi behar da.

ERDIGUNERA. Feministok agenda politikoan eragitera etorri gara. Mugimendu feministaren gidaritzapean, eremu sozia-



IRAIDE JUARISTI

LAB sindikatuaren eskualdeko arduraduna

letik eta laboraletik konkistatuko dugu erdigunea.

Zaintza beharrezkoa da bizitza(k) sostengatzeko, bizitza osoan eta eremu guztietan. Gizaki interdependentek gara. Ahultasun hori aitortzeko beldurra kendu, eta egindako baieztapenaren balio iraultzailean sinesten dut. Balio politikoa eman diezaiegun zaintzari eta hitzaren beraren osotasunari, eta bidea egin dezagun guztion bizitzak erdigunean ipintzen dituen eredu baterantz. Sistema osoa zailtzean jarri dezagun. Zaintzak, dena aldatzeko.

Zantzoak (oihuz, irrintziz) bete gendun martxoaren 8a. Zantzoak amorrutik bota genduzan, tortolaraino gagozala oihukatzeke, tortolaraino jendarte heteropatriarkal honetan "normalizat" hartzen diran egoerakaz eta erabakiakaz.

Noz demontre jarriko dabe guztion zaintza erdigunean? Diruak agintzen dauen gizartearen, zaintza azken lerroan dagoalakoan nago; galdetu ezpabere SAdeko emakume burukalariei: 8 urte etxez etxe-ko laguntza behar, eta euren lan-baldintzak okerrera baino ez doaz.

Baina nork hartzen ditu erabakiak? Nortzuk dagoz aginte-postuetan? Emakundek jakinarazo deuskunez, gerentzia-

Feminismoa zantzoka



OIHANA ASTOBIETA

Irakaslea

postuetan emakumeak % 6 baino ez dira, eta kargu publikoetan (zinegotzi, alkate, diputatu...) % 34 inguru. Horreetatik zenbat ete dira feminista? Eta gainontzekoen artean?

Halandaze, botatako zantzoakaz aldaketa gogoia aldarrikatu gendun: emakumeon ahalduntzea, ahizpatasuna, zaintza erdigunean jartea eta behar dan moduan partekatzea, konplizitatea, empatia, indarkeria matxistarik eza... Duda barik, feminismoa da alternatiba!

Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

TABERNA
GAZTE

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

BASALBEITIKO
TXAKOLINA

Bizkaiko Txakolina
Denominación de origen

Goitioltza auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

Lan-arriskuak prebenitzeko errealitate birtualeko lehen lehiaketa, Potiteknika Txorierrin



Martxoaren 23an, lehiaketa antolatuz zen Politeknika Txorierrin. Ikasleek euren trebetasuna erakutsi zuten laneko arriskuak modu eraginkorrean eta entretengarrian prebenitzeko, eta errealitate birtuala erabili zuten horretarako. Lehiaketa laneko arriskuen prebentzioari lotutako egitasmo baten baitan egin zen, eta lau ikastetxetako ikasleak aritu ziren bertan.

Egitasmoaren helburua hau da: errealitate birtualaren simulagailuak eta gamifikazioan oinarritutako ikaskuntza-metodologia erabilita, ikasleek laneko arriskuei aurrea hartzen ikastea. Politeknika Txorierrirekin batera, Estatu beste hiru ikastetxe dabilta proiektuan: Simon de Colonia LHII (Burgos), Enrique Florez BHI (Burgos) eta Goierri Eskola.

“Suhiltzaile jantzita”, ikasleek hainbat su-mota antzeman behar izan zituzten lehiaketan, eta hainbat egoeraren aurrean nola jokatu erabaki. Simon de Colonia ikastetxeak salbatu zituen bizitza gehien. Lehiaketari begira, asteak eman dituzte entseguak egiten eta hainbat egoeratan trebatzen, hala nola altuerako lanetan eta arrisku elektrikoetan.

“Modu honetan, Politeknika Txorierrin erreferente bihurtu da Laneko Arriskuak Prebenitzeko praktiketan, eta teknologia berrien eta errealitate birtualaren bidezko ezagutza sustatzen du ikasleen artean”, azaldu dute. Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioan aurkeztu da egitasmoa, eta horri esker errealitate birtualeko laborategi bana atondu da egitasmoan parte hartzen duten ikastetxeetan. “Laborategiak beharrezkoak diren baliabide guztiak ditu, etorkizunean ere ikasleek jarraitu dezaten laneko arriskuen prebentzioan eta osasun- eta ingurumen-arloetan trebetasunak eskuratzen”. LUDUS TECH SL enpresak proiektua lagundu du, eta aholkularitza eta prestakuntza eman.

WhatsApp taldearen harpidedunen arteko zozketa

Beatriz Ortiz da martxoko irabazlea eta Baserri Antzokian lagun birezako bazkaria jasoko du saritzat.

WhatsApp taldean sartzeko eta Txorierriko albisteak jasotzeko, idatzi ALTA hitza eta bidali whatsapp mezua **747 406 561** telefono-zenbakira.



ESKUZ BINAKAKO MASTER LABORAL KUTXA TXAPELKETA IRABAZI DU URIARTE GORDON SONDIKOZTARRAK.– Finalak Arrigorriagako pilotalekuan jokatu ziren martxoaren 19an. Pilota mistoa erabilita eta gazteen kategorian, Alaia Uriarte Gordon sondikoztarra bertan aritu zen Betegirekin batera. Pilotariek 22 eta 14 irabazi zioten Gisasola eta Bilyak osatutako bikoteari. Bestalde, sondikoztarrak ADOS txapelketa ere irabazi zuen promozio kategorian.

a: Nexis

Liburu rallya Zamudion

Liburuaren Eguna ospatzeko, apirilean liburu rallya egingo dute Zamudioko liburutegian. Erabiltzaileek hainbat liburu etako aipua topatuko dituzte liburutegian, eta asmatu beharko dute zein liburutakoak diren. Asmatzen dutenen artean 40 euroko txartelak zozketatuko dituzte, Zamudioko liburu-dendan gastatu ditzaten. Gazteentzako eta helduentzako ekintza da.



Gül İşık (www.pexels.com)

Aireportu-baimenak jaso ditu Loiu, igerilekuak egiteko

Aireportuaren ondoko lurretan aire zabaleko udal-igerilekuak eraikitzeke asmoa du Loiu Udalak, eta horretarako, beste egitasmo batzuekin gertatu den moduan, aireportu-baimenak behar ditu. Josu Andoni Begoña alkateak bere webgunean jakinarazi duenez, Espainiako gobernuko Garraioetako Ministerioak eta Aire Segurtasunerako Estatu Agentziak ontzat eman dute egitasmoa, eta hori babestu. "Herritarren bizikaltatea hobetuko da proiektuari esker, eta Loiu beste bultzada bat emango diogu", idatzi du.



Markus Spiske (www.pexels.com)



Bizikletetarako eta oinezkoentzako bidea egingo da Lezamako Trenbide Zaharrean 2025erako

Bizkaiko Foru Aldundiak jakinarazi duenez, Lezamako Trenbide Zaharrean bizikletetarako eta oinezkoentzako 7,5 kilometroko bidea egiteko proiektua onartu dute. Azpiegiturak lotuko ditu Zamudio, Derio, Loiu, Sondika eta Bilbo, eta espero da bi urteren buruan amaituta egotea. Bizi Txorierrri elkarteak urteak eta urteak daramatza bide berdearen atzean eta pozik hartu du egitasmoa, baina "lasaitasunez" ere bai.

Ibilbideak 3,2 metroko zabalera izango du hasierako sei kilometroetan; eta 3,5 metrokoa, gainerakoan. Lurzorua zagar artifizialezkoa izango da. Era berean, 446 metroko tunela eraberritu egingo da segurtasuna bermatzeko: inpermeabilizatu egingo da, LED argiak ipini, hormigoizko horma baten bidez tunelaren egitura indartu, eta aisialdirako guñeak atondu. Trenbide Zaharren lanak Bide Naturalen Programaren barruan daude. Hori Estatuko programa da eta, hortaz, Espainiako gobernuak 7,3 milioi euro ordainduko ditu lanak egiteko. Bizkaiko Foru Aldundiak lurzoruak utzi, eta bidearen mantentze-lanak hartuko ditu bere gain. Bilbo eta Lezama lotzen zituen trenbide zaharren bidean egingo da

proiektua; 1901ean utzi zitzaion bide hori erabiltzeari.

Bizi Txorierrri

Bizi Txorierrri elkarteak 2007tik darama Lezamako Trenbide Zaharra berreskuratu dadila eskatzen. Proiektua pozik hartu dute, baina "lasaitasunez" ere bai. "Lan ikaragarria egin dugu haren alde: martxak eta hitzaldiak, komunikabideetara jo, blogean idatzi... Proiektuak aurrera egingo duela esan digute askotan, baina azkenenean ez da inoiz egin. Dirudienez, oraingo egitasmoa serio hartu da; ikusiko dugu zer gertatzen den. Egiten bada, ongi etorria izango da; bazen garaia!", esan du Gorka Saratxu taldekideak. "Antza, norbaitek begiak ireki ditu eta konturatu da Lezamako Trenbide Zaharra oso leku polita dela. Artxanda bultzatu nahi dute, eta horri dago lotuta. Toki ederra da oinez egiteko eta bizikletaz ibiltzeko: jende askok disfrutatuko du".

Trenbide Zaharren balioa azpimarratze aldera, mendi-martxa antolatu ohi zuten lehen; hala ere, pandemiaren ondorioz utzi zitoten hura antolatzei. Adierazi moduan, badute mendi martxa berriro antolatzeko asmoa, "irailerako-edo".

Estalitako aparkalekua zabalik Zamudion

Aparkalekua Kultur Etxearen azpian atondu da eta 76 ibilgailu eta zortzi motor aparkatzeko lekua dago bertan, baita mugikortasun murriztua duten pertsonentzako hiru leku ere. Gainera, lau auto elektriko kargatzeko lekua ere badago. Lanak Kultur Etxearen ingurua eraberritzeko planaren baitan egin dira.

Kultur Etxeko plaza eta aparkalekua egiteko lanek 13 hilabete iraun dute eta 1,5 milioi euroko aurrekontua izan dute. Igotz López alkatearen esanetan, "atzerapena egon da, kargatzaile elektriko materialak berandu heldu direlako". Azaldu duenez, "aparkaleku berriak ekarriko du herriko beste gune batzuk herritarrentzat erabili ahal izatea; gainera, herrigunearen trafikoa arinduko da, herritik aparkaleku bila ibili beharrean, autoak parkinera zuzenean sartuko direlako".

Aparkalekua doakoa da eta momentuz auto elektrikoak ere doan kargatu ahal dira; hala ere, etorkizunean ordaindu egin



beharko da. Autoak gehienez hiru egun jarraian utzi ahal dira aparkalekuan. "Zamudioztarrek ez ezik kanpokoek ere erabili ahal dira, esterako, aireportura joan behar dutenek hemen utzi ahal dute autoa".

Aparkalekuarekin batera, Kultura Etxeko plaza ere berritu da. "Esparruak 1.100 metro koadro ditu, herritarrak han batzeko eta ekintzak antolatzeko; adibidez, Lagatu Eguna. Plazak ez du estalkirik, baina ipintzeko asmoa dugu".

TALDEA

GURENA

ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

ZURE NEURRIRA



BABESPEKO APARTAMENTUAK
600 euro
asistentzia sanitarioa (24 ordu)

EGONALDIAK EGOITZEAN
eguncan
gauean
asteburuecan

Unbe txiki bidea 9
LOIU 48180
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049
www.gurena.com

Sondikako anbulatorioa handituko du Osakidetzak

Gotzone Sagardui Osasun sailburuak eta Xabier Zubiara Sondikako alkateak hitzarmena sinatu dute. Hitzarmenari esker, Sondikako anbulatorioa handituko da, herritarrei osasun-arreta hobea eskaini ahal izateko. Sondikak 4.500 biztanle inguru ditu, eta anbulatorioa txiki gelditu da guztiak behar moduan artatzeko. Hortaz, udalak 1.100 metro koadroko lursaila laga dio Osakidetzari, azpiegitura handitzeko. Horrek aukera ekarriko du etorkizunean, gaur egungo zerbitzuez gainera, osasun-zerbitzu gehiago eskaintzeko.



Txorierriko musika-taldeen lehiaketa antolatu du BANek



Dmitry Demidov
(www.pexels.com)

Baseri Antzokiak Txorierriko musika-taldeen lehiaketa antolatu du ekainerako. Lehiaketan 16 urtetik gorako musikariek osatutako taldeek parte hartu ahaliko dute, eta gutxienez taldekide batek Txorierrikoa izan beharko du. Talde irabazleak 500 euro jasoko ditu sarritzat. Izen-ematea apirilaren 21a baino lehen egin beharko da info@baserriantzokia.eus helbide elektronikora idatzita, edo 634 401 580 telefono-zenbakira deituta.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, lehiaketan ibili ahal izateko, musika-taldeen gutxienez bi partaide izan beharko dituzte; hau da, ez da bakarlaririk onartuko. Parte-hartzaileen kopurua mugatua egongo da, eta, hortaz, taldeek bideo edo audio bat bidali beharko dute izen-ematearekin

batera, antolatzaileek hautaketa egin ahal izateko. Euren erabakia apirilaren 24an emango dute ezagutzera.

Lehiaketa ekainaren 2an eta 9an egingo asmoa dute. Kontzertu bakoitzak gutxienez 30 minutu iraungo du, eta ez da mezu arrazistarik, homofoborik eta matxistarik onartuko. Epaimahaiak lehiaketaren amaieran esango du irabazlea nor den, eta hori aukeratzeko, musika-maila eta eszenaratzea hartuko ditu kontuan. Edozelan ere, kontzertu guztiak grabatuko dira eta parte-hartzaileek kopia bana jasoko dute. Gutxieneko parte-hartzaileen kopururik ez egotearen ondorioz lehiaketa bertan behera gelditzen bada, antolatzaileek saria eman gabe uzteko eskubidea dute.

auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisoló 4, behea B
48150 SONDIKA

634 410 470
auzokidefincas@gmail.com

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Txorierri et., 46
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

Sondigarbi GARBITEGIA

ITURRIGANE, 2
635584941

EGUNERO
8:00-22:00

KURREGOITI JATETXEA

Lauroeta etabidea, 27
48180 Lolu-Bizkaia
T-Faxo: 94 453 24 40
restauranteaurregoiti.com

elekma

LURRATZAREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BEHARRAK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TXUKAK

lehenengo merkatik • Preziozko onenak.

BOSCH, SIEMENS, BALAY

Txorierri etabidea, 253.N 48180 Lolu
T: 944 599 232
www.elekma.es

PELUKERIA ESTETIKA
LARRABETZU

Anguleri nº 2 Bajo - 48195 LARRABETZU
Tel. 944 558 144

Juana Elguezabalen omenezko plaka ipini da Derion

Martxoaren 8an, omenaldi hunkigarria egin zioten Juana Elguezabali Derion. Gainera, Eneritz Amondarain herriko artistak Elguezabalen omenez egindako plaka ipini zen institutuaren eta eskolaren arteko jolas-gunean. Ekitaldian parte hartu zuten Eguezabalen senideek, institutuko eta eskolako hezkuntza-komunitateak, Sutondoan elkarteak eta Derioko Udalak.

Juana Elguezabal 1842an jaio zen Derion eta gaztetxoan zela Cacesera joan zen osaba eta izeko zaintzera. Emakume ai-

tzindaria izan zen eta bertan antzokia eta eskola bat sortu zituen. Bere izena herriko kale edo leku bati ipintzeko proposamena Txorierrri Institutuko DBHko laugarren mailako ikasle batzuek egin zuten. Izan ere, Filosofia irakasgairako lan bat egiten zebiltzala, Derioko kale, auzo eta parkeen izenak aztertu, eta topatu zuten emakume-izen bakarra zegoela: Arantzazu kalea. Egoera zuzentzea beharrezkotzat jo zuten eta, hasteko, herriko kale bati Juana Elguezabal izena ipintzeko proposamena egin zioten udalari.



Zamudioko Gazte Eguna apirilaren 22an izango da

Inisitue Zamudioko Gazte Asanbladak apirilaren 22rako antolatu du Gazte Eguna. Goizeko 12,30ean hasita, ekitaldi-sorta zabala egongo da egun osoan. Poteo musikatuaren ostean, herri bazkaria egingo dute 15:00etan. Horren ostean, 17:30ean, olimpiadak izango dira, eta Game of Txaranga elektrotxaranga herriko txokoak girotzen ibiliko da 18:30etik aurrera. Kontzertuak 22:30ean hasiko dira: Arene 6, Herdoil, Matxinada eta Zanburinak. Bestalde, 00:30ean ekitaldia egingo dute. Bazkarirako txartelak 12 euroan eskuratu daitezke gizarte-sareetan eta Fernan eta Crazy Guitar tabernetan.

SUI DELUX

Magia gauek goizera bitartean gertatzen da

Ezagutu ezazu lo indarberritzailearen magia; berdin dio nolako eguna izan edo izango duzun.

suitdelux.es

Titin III eta Mikel Goñi norgehiagoka arituko dira apirilaren 29an Larrabetzun

Maiatzean, Koadrila Eguna egin ohi dute Larrabetzun eta urtero herriko lagun-talde batek hartzen du ospakizuna antolatzeko ardura. Aurten Lodiak koadrilako kideak ibiliko dira antolatzeko lanetan, eta, eguneko ekitaldiak ordaindu ahal izateko, hainbat ekintza prestatuko dituzte hemendik maiatzera bitartean. Haietako bat da esku-pilota partida eta bertan Gorka Esteban eta Mikel Goñi norgehiagoka ibiliko dira Titin III eta Edorta Bilbaoren aurka. Partida apirilaren 29an izango da eta sarrerak jadanik daude eskuragarri.

Sarrerak 10 euroan ipini dira salgai Gure Etxean eta Irusta tabernan; 16 urtetik beherakoak doan sartu ahalko dira frontoira. Partida 19:00etan hasiko da, baina aurretik herriko gazteen partidak jokatuko dira. Saioa amaituta, pilotarien kamisetak zozketatuko dituzte. Bestalde, taberna ipiniko da. Esan moduan, batutako dirua aurtengo Koadrila Eguna antolatzeko erabiliko da.



Titin III.a. a: wikipedia



Goiri Erdiko plaza eta liburutegia berri dituzte Sondikan

Sondikako Udalak erabat berri ditu Goiri Erdiko plaza eta liburutegia. Lanek hiru hilabete iraun dute eta, Xabier Zubiaur alkatearen esanetan, erantzun egin diote herritarrek egindako eskaerari. Lanetan 700.000 euro ipini dituzte.

Plazaren berritzeari dagokionez, umeen txinboak berri dira, eta batzokiaren atzeko aldera eraman. Estalki handiagoa ere ipini da umeak zein gurasoak euritik babestu daitezten. Era berean, eserlekuak eta arbolak jarri dira liburutegiaren aurrean. "Lasai egoteko gunea atondu da bertan, alboan adintsuen etxea dago eta. Irakurzaleek eta nagusiek han patxadaz egoteko aukera izango dute", esan du Zubiaurrek. Lanek 570.000 euro balio izan dituzte, eta Bizkaiko Foru Aldundiak 44.000 euroko ekarpena egin du.

Bestalde, 220.000 euro ipini dituzte liburutegia berritzeko. Liburuzainaren bulegoa eta liburuak gordetzeko lekua berritzeaz gainera, zenbait esparru atondu dira, hala nola umeentzako gunea eta irakurtzeko gunea. KZGunea ere bertan ipiniko da laster. Halaber, erakusketa-aretoa txukundu da, eta alboan 32 lagunentzako ikasketa-gela ipini. Azken hori egunero



egongo da zabalik 08:00etatik 22:00etara, eta hara sartzeko sakeleko telefonorako aplikazio baten bidez kudeatuko du erabiltzaile bakoitzak.



Zamudiok hobetze-lanak egin ditu udalerrian



Zamudioko Udalak jakinarazi duenez, azken asteetan hobekuntza-lanak egin dituzte herriko hainbat lekutan, hala nola auzoetan, poligonoetan eta San Bartolome ermitan. Era berean, Adintsuen Etxea berritu da, eta Done Jakue bideari lotutako informazio-panelak ipini. Avril mendiaren inguruan ere jarri dira informazio-panelak, hango ondare historikoa eta kulturala ezagutarazteko.

Azaldu duten moduan, San Bartolome ermitako teilatua konpondu da, apurtutako teilak ordezkatu, eta, argi handiagoa sartzeko, sabai-leiho berriak ipini. Burdinazko hesi berriak ere ipini dituzte, eta fungizida bota diote egurrari, onddoak prebenitzeko. Bestalde, hobekuntza-lanak auzoetan eta industrialdeetan ere egin dira. Geldo auzoan, esaterako, errepidea asfaltatu da, eta isurkiak atondu; Aranoltza auzoan itxitura ipini da edukiontziak dauden inguruan. Era berean, irrist egitea ekiditeko alfonbra jarri da eskolaren ondoko pasabidean. Industrialdeei dagokienez, areka garbitu da

Ugaldeguren eta edukiontzi berriak ipini dira Ugaldeguren len. Udalak esan du laster industrialdeetako hainbat lekutan edukiontzi berriak jarriko direla.

Hobetze-lanak Adintsuen Etxean ere egin dituzte. Horrela, lokala barrualdean zein kanpoaldean margotu da, eta lixatu eta margotu dira leihoak, berdin hesiak eta teilatua. Gainera, Zamudiotik pasatzen den Kostaldeko Done Jakue Bidearen balioa azpimarratze aldera, informazio-panelak ipini dira erromesei harrera egiteko, ibilbidea azaltzeko eta inguruko ondare turistikoa eta kulturala ezagutzera emateko. Panelak elkarlanean ipini dira Eusko Jaurlaritzarekin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Uriben turismoa sustatzeko erakundeekin.

Azkenik, Zamudioko eta inguruko ondare historikoa eta kulturala ezagutzera emateko, informazio-panel bi jarri dira Avril mendian: bata, Gaztelukolanda trikuharriari buruz, eta bestea, Burdin Hesiaren zatia izan zen metrailadore-habiari buruz.

Aretxaldeko futbol 5eko pista eraberritu da kirol inklusiboa sustatzeko

Ibane Cerezo ilustratzaileak eraberritu du Lezamako Aretxalde auzoko futbol 5eko pista. Bertan konposizio geometrikoa eta dinamikoa egin du kolore bizi-biziki erabillita, zeinek, marrazkiaren protagonismoa galdu gabe, pistako lerroak bereiztea ahalbidetzen baitute. Eraberritzearen helburua da kirolean aniztasuna eta inklusioa sustatzea, baita bizitza aktiboa ere. Eraberritzea "Fanáticos de lo Real by Burger King" proiektuaren baitan egin da, iazko ekainean Athletic Clubaren Lezamako instalazioetan jokaturako Liga Genuine Santanderreko finalen harira. Hori adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako lehiaketa da eta LaLigak antolatzen du. Inaugurazioan hauek batu ziren: Jon Ander Aurrekoetxea, Lezamako alkatea; Andrea Mejorada, Restaurant Brands Iberiako Komunikazio Korporatiboko Saileko zuzendaria; Álvaro Astorqui, Burger King Espainiako Babesletza Saileko ordezkaria; Aritz Aduriz, futbolari ohia eta LaLigako enbaxadorea; eta LaLigako ordezkariak eta LaLiga Genuine Santanderreko Athletic Club Fundazioko kideak. "Ekimen honek bat egiten du Lezamako Udalak inklusioarekin eta aniztasunarekin duen konpromisoarekin, kasu honetan kirol alorrean", adierazi dute udaletik.



ArtileArtean
Mungialde, 4 - DERIO
946 240 343 / 665 702 751
www.artileartean.com

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

Bizkargi Kafetegia
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Kazolak

“Positibotasun handi-handia dut”

Otxandioko umoregileak eta Uritarra Larrabetzuko futbol taldeko jokalariek eta talde teknikoak barreak egin zituzten duela aste batzuk. Ederto batean pasatu zuten elkarri txantxak egiten. Geuk ere ederto pasatu dugu Axperekin solasaldian.

t: Itxaso Marina

Buru-belarri zabilta EITBrako Aupa hi! programa prestatzen, ezta?

Bai. Dena ondo badoa, uztailean eta abuztuan emango dute ETB2n, eta orain nabil gidoiak idazten, pertsoniak topatzen... Kapitulu bakoitzean gai sozial bat jorratuko da eta nire gizarte-sareetako jendea ezagutuko dut, denok batera gai sozialei heltzeko edo erronkak aurrera eramateko. Era berean, nire bizimodua eramango da pantailara. Izan ere, Bartzelonan lau urte eman ditut furgonetan bizi izaten, eta horrela bizitzeak ekarri dizkidan desabantailak, hala ere, gauza politak bizitzeko aukera ere ekarri didate. Adibidez, non dutxatu ez nuen ez, futbol-talde batean jokatzeko nuen, dutxa erabili ahal izateko; eta nire ikuskizunetarako sarrerak zozketatu ditut gizarte-sareetako jarraitzaileen artean, euren garbigailua erabiltzen uztearen ordez. Jende berria, eta oso polita, ezagutu dut.

Baliabide handiko pertsona zara, bai horixe!

Askotan, baliabide material gutxi izateak ahalbidetzen dizu baliabide sozial gehiago garatzea, eta hori erabakigarria izan da nire bilakaera pertsonalerako.

Otxandion, herrian, zabilta gaur egun. Furgonetan bizi izaten jarraitzen duzu?

Bai. Amamarenera joaten naiz bazkal-tzera eta aitarekin izaten naiz etxean, baina furgonetan egiten dut lo: nire txokoa da.

JULEN AXPE | furgonologista



Nola bihurtu zinen furgonologista?

Alde batetik, txikitatik gustatzen zait furgonetaz bidaiatzea; eta bestetik, umorea ere grina dut. Bartzelonan interpretazioa ikasten nabilela ezagutu nuen bakarriketen mundua, eta antzeztea baino gehiago gustatu zitzaidan. Mundu horretan apurka-apurka sartu nintzen eta otu zitzaidan nire zaletasun biak uz-

tartzea: furgoneta eta umorea. Hortaz, furgoneta areto bilakatu dut eta herriz herri ibiltzen naiz bakarriketak egiten eta jendea ezagutzen.

480.000 kilometro inguru ditu eginda zure furgonetak.

Nik beste urte ditu: 28 urte. Osabarena zen eta eman zidan. Matxura batzuk konpondu nituen eta segituan joan nintzen



Umorea gurpil gainean

Axe umoregilea da eta bere bizipenetan oinarritutako hamaika istorio dibertigarri ditu kontatzeko. Istorioak furgonetaz eramaten ditu herrietako plazetara; hala ere, Bartzelonako, Madrilgo eta Bilboko aretoetan ere gozatu ditzakegu. “Ezberdinak diren arren, biek ekartzen didate emozioa. Plazetan ahal moduan zabilta: jendearekin hitz egiten, zarata, umeak kontrolatu... Antzokietan, berriz, jendeak ordaindu du zeure ikuskizuna ikusteko, isilik daude...”

Euskal Herritik ibilia da Kataluniatik, Aragoitik, Asturiasetik... “Oso esperientzia polita da. Ikuskizuna egitera joaten zara herri batera edo bestera, baina ikuskizun hori da bidaiaren parte txiki-txikia: furgonetan ordu asko ematen dira, gidatzen, musika entzuten, paisaia ikusten...; lekura heltzen da, non aparkatu topatu, jendea ezagutu... Ordu bateko ikuskizunaren atzean daude bizipen ugari, niri asko gustatzen zaizkidanak. Gainera, gidatzea eta musika entzutea inspirazio-iturria dira niretzat”.

“Furgonetan bizitzeak ekarri dizkidan desabantailak gauza politak bizitzeko aukera ere ekarri didate”

Bartzelonara. Motorra ere aldatu nion eta, hortaz, espero dut oraindik luze irautea. Askok esan didate ibilgailuen marka batekin edo bestearekin hitz egiteko, elkarrekin kolaborazioak-edo egin ditzagun, baina momentuz ez dut furgonetaz aldatzeko beharrik: ondo nago ni-rearekin eta, gainera, istorio asko ditu.

Haietako bat kontatuko diguzu?

“Pertsona moduan hazi naiz eta ez naiz duela lau urteko pertsona bera; nire errealitatea, berriz, berbera da”

Bartzelonan, hirian bertan bizi nintzen, furgoneta kalean aparkatzen nuen eta. Ez nuen furgoneta kisketaz ixten, eta gau batean gizon bat sartu zen barrura. Itzelezko sustoa hartu zuen ni ikusita! Gauza da egoera nola normalizatu nuen: galdetu nion zertan zebilen, eta berak erantzun furgoneta zabalik zegoen begiratzen zebilela... Ziur nago kikilduko

nintzela eta poliziarri deituko niola, hori Bartzelonara heldu berria nintzela gertatuz gero.

Oso ezagun bihurtu zara; asko aldatu zaizu bizitza?

Ez dut uste nigan ezer aldatu denik. Egia da prozesu honetan pertsona moduan hazi naizela eta ez naizela orain dela lau urte nintzen pertsona bera, baina nire errealitatea berbera da: jendearekin dudak harremana, lagunak, egin nahi dituzten gauzak, pozten nauena... Famak ez dit atentzioa ematen, baina lana ondo egiteak eta pertsona moduan behar bezala hazteak fama ekartzen badit, prozesuaren parte naturaltzat hartu, eta kudeatzen ikasi beharko dut. Nolanahi ere, ez ditut helburuak eta pentsatzeko era galduko.

Futbolista izan nahi zenuen; umoregile hobea zara?

Hainbeste partida galdu eta gero, ziur asko baietz (kar-kar). Bueno, hain txarra ere ez nintzen, ze Alaves taldean jokatu nuen, eta 18 urtez azpiko euskal selekzioan... Baina, bai, nahiko urruti gelditu nintzen. Beti esaten dut lehenik eta behin porrot egin duen futbolista naizela; hala ere, nire ustez, porrota da bizitzak ematen digun seinalerik argiena, ulertzeko gure bidea beste leku batean dagoela.

Athetiken eta Osasunaren partidak euskaraz kontatzen dituzu DAZNerako.

Futbola bizitzeko beste era bat da. Aukera espero gabe heldu zitzaidan, eta asko gozatzen dut. Hartu kontuan: bakarriketari bat sartu dute kabina baten barruan, eta hori txinpantze bat sukaldean sartzea baino arriskutsuagoa da (kar-kar). Bueno, nire estiloa gustatzen zaie; beraz, aurrera!

Prestatzen zabiltzan saioaz aparte, zer asmo duzu epe ertainera?

Komunikatzea gustatzen zait; umoretik komunikatzea, gainera. Proiektu honen ostean etorriko da beste bat, eta bizipenak sortu beharko ditut gauzak komunikatzeko.

Zer da umorea?

Bizitza ikusteko modua. Batzuetan esaten dudak moduan, positibotasun handi-handia dut. Izan ere, gertatzen zai-zuna gertatuta ere, alde ona ere ikusten jakin behar da. Adibidez, behin, futboleko jokatzeko, tibia apurtu nuen eta ospitalean bertan egonda idatzi nuen horri buruzko esketx bat. Hori da umorea, emozioak bideratzeko bidea.

"Nire musika nire errealitatearen isla da"

AITOR MERODIO | raperoa

Rapari beltzen eta gazikileen musika dela esaten zaio, baina horiek etiketak baino ez dira. Aitor Merodio ez da beltza, ezta gaizkilea ere; rap-kantaria, ordea, bada. Gaztetan hasi zen musika hori entzuten eta, denboraren poderioz, bere kantik lantzen hasi zen. Pandemiak bere ibilbidea eten egin zuen, baina etorkizunean diskoa grabatu nahiko luke. Bere kantik Spotify plataforman daude entzungai.

t/a: Gaizka Eguzkitza

"Hamahiru-hamalau urte nituela, rapa entzuten hasi nintzen lagunekin. Besteen kantik entzun eta gero, animatu nintzen abestiak egitera, batez ere, triste nengilenean: oinarriren bat hartzen nuen eta kantik osatzen nituen. Ondoren, lagunei abesten nizkien eta kantik zabaltzeko esan zidaten, identifikatuta sentitzen zirelako". Horrela egin zen rapero Aitor Merodio derioztarra (1998). Rapean, beraz, "apurka-apurka" sartu zen, prozesu natural baten ondorioz: entzule zaletua izatetik oholtzara igotzera eta kantik jendaurrean abestera. Ibilbide horretan, Merodio bere buruaren kontra sartu da lehian. "Hasieran kantik entzuten dituzu; geroago, kantik sortu; eta azkenik, denboraren poderioz, gero eta hobeto egiten duzu; eta hurrengo kanta aurrekoa baino hobea izan behar da".

Merodio ez da rapero profesionala; gustatuko litzaioke, baina "musikatik bizimodua ateratzea oso zaila da". Merodiok musika, eta batez ere zuzen-

ekoa, atsegin du. "Barruko sentimenduak azalaraztea eta jendeak esaten duzunarekin bat egitea itzela da. Eta hori batez ere kontzertuetan ikusten da. Bertan jendeak zuzenean ikusten zaitu, ez sakelako telefono batean. Kontzertuek erakusten dute erreala zarela eta benetako artista zarela".

Lehenengo kontzertuak 2019an hasi zen ematen, baina pandemiak ibilbidea puskatu zion. Horren ostean, Larrabetzuko Hori Bai gaztetxean aritu da, besteak beste. Guztira, 12-14 kantik osatzen dute Merodioren errepertorioa. Lehen, diskoak ateratzen ziren; gaur egun, aldiz, musika-industriari abeslariak single-ak ateratzen dituzte, hau da, kantik banan-banan plazaratzen dituzte, baina derioztarrak diskoa atera nahiko luke. "Diskoetan kantik lotura dute, ideia nagusia. Bestetik, dirua eta denbora ere funtsezkotzat joko nituzke, diskoa aurrera ateratzeko".

Merodiok "Mero NK" du izena Instagramen eta Twitterren, baita Spotifyn eta Youtuben ere. "Gizarte sareak oso tresna



erabilgarriak dira. Zure musika zabaltzeaz gainera, beste musikari batzuekin zabilta harremanetan. Eta musikari esker, jende piloia ezagutu dut, eta lagun asko egin. Izan ere, kuadrillak ditut Galdakaon, Barakaldon... Musikak ez dizu agian dirurik emango, baina batzuetan lagun onak irabazten dituzu, eta hori ez da makala!".

Rap mamitsua

Rapero derioztarrak gehienbat gaztelaniaz abesten du, erosoago sentitzen delako. Bere esanetan, rapa musika baino askoz gehiago da. "Kultura bat da, nire bizitza kontatzeko tresna bat: lanik ez badut eta gobernua nire kontra agertzen bada, horren haritik kantatuko dut. Nire errealitatearen isla izango da". Hala ere, rapari lotutako etiketa batzuk ez zaizkio batere gustatzen. "Aurreiritzi asko daude eta batzuk guk geuk, raperoak, zabaldu ditugu: droga, gaizkileak, gatazkak... Horren haritik, rap abeslarien arteko lehiak -oilarren borrokak- ospea hartu dute gazte askoren artean, baina nik ez ditut gustuko: elkarri errespetu handia diote kantxatik kanpo, baina barruan abeslariak elkarri irainak bota baino ez dute egiten. Mamirik gabeko musika da".

Rapean prozesu natural batean sartu zen: entzule zaletua izatetik, kantik jendaurrean abestera

"Musikak ez dizu agian dirurik emango, baina batzuetan lagun onak irabazten dituzu, eta hori ez da makala!"



Bideoak

Aitor Merodiok Derioko eskolan eta institutuan ikasi zuen, baita Txorie-
rriko Politeknika Ikastegian ere. Han
Telekomunikazio Goi-mailako zikloa
bukatu zuen eta zenbait lan izan ditu
horri lotuta: gaur egun Galiziako sare
mugikorra konpontzen du urrutitik.
Musikaz gainera, ikus-entzunezko
edukiak sortzea ere gustatzen zaio.
"Oso zinemazalea izan naiz beti: mota
guztietako filmak ikusten ditut, istorio
onak kontatzen badituzte".

Lagun batzuek lagundu zioten le-
henengo pausoak egiten, baina bere
kabuz ere ikasi du eta bideoklip ba-
tzuk grabatu ditu. "Normalean ahoz
aho heltzen zaizkit proiektuak eta
lagunekin egiten ditut. Atzean lan
ikaragarria dago eta ez da ikusten:
ideia argi izan behar da, normalean
ideia aurrekontura egokitu... Beste
sormen-lan bat da, normalean mu-
sikariaren eta zuzendariaren artean
egiten dena, eta jende asko dago
atzean".

POLITEKNIKA TXORIERRI

ATE IREKIAK

Batzilergoa	Martxoak 15 eta 21.
Lanbide Heziketa	Martxoak 21. Maiatzak 2,3 eta 4.

Eman izena >>>

www.politeknikatxorierri.eus

NETELID

Elikagaien prezioen igoerari, zelan egin aurre?

Azkenengo urtean elikagaien prezioak % 15eko igoera izan du, herritarren soldatak ez bezala (% 3-4ko igoera 2022an). Ondorioz, herritarrak orokorrean elikagai gutxiago erosten hasi dira, eta erosketetan elikagai merkeagoak eskuratzen dituzte (maiz, kalitate txarrekoak). Horrek gure dieta kaltetu dezake, eta ondorioz sistema immunologikoaren erantzuna gutxitu, garapen fisikoa eta mentala aldatu eta gaitasunak izateko arriskua handitu.

ESTRATEGIAK: erosketa-saskian dirua aurrezteko erak

- Erosketak, beharrezkoak diren elikagaietara mugatu: asteko jatorduak planifikatu, erosketa zerrenda egin eta beharrezkoa dena erosi. Kapritxoak aldi batera utzi eta erosketak goserik gabe egin.
- Prezioak konparatu: denda eta kate ezberdinekin eskaintzen dituzten prezioak konparatu, elikagai bakoitza non erosi jakiteko.
- Ez utzi markak erabakia baldintzatzea: markaren ospea ez da beti kalitatearen sinonimoa. Marka ezezagun batzuk ("marka zuriak") kalitate handikoak dira eta, aldi berean, merkeagoak.
- Ez utzi etiketak engaina zaitzaten: etiketan "eskaintza" edo "beherapena" hitzak dituzten produktuak beti ez dira merkeagoak izaten (marketin estrategiak izaten ohi dira). Produktua merkeagoa den jakiteko, prezioak pisuaren arabera alderatu, ez salmenta-prezioaren arabera.
- Erosi elikagaiak ontziratu gabe: iraupen luzeko elikagaiak, hala nola zerealak, arroza, fruitu lehorrak eta lekale lehorrak, ontziratu gabe edo ontzi handietan merkeagoak eta jasangarriagoak dira.
- Gogoratu aurrezteko modu bat jantzia ez xahutzea dela. Produktu batzuk iraingitzean daudenean merkeago daude, baita kantitate handietan erosiz gero ere. Xahutzea saihesteko, erosi soilik jatea aurreikusten duzuna, eta aldian-aldian, elikagaien iraingitze data begiratu, iraingitzean dauden elikagaiei lehentasuna emateko. Jakiak kontserbatzen ikastea ere garrantzitsua da.

- Kontuz! Ez da gauza bera iraingitze-data eta lehentasunezko kontsumo-data. Lehentasunezko kontsumo data adierazten du elikagaiaren propietateak noiz arte mantentzen diren bere horretan (betiere ontzia ireki ez bada), baina data horretatik aurrera, kontsumitzeko segurua izaten jarrai dezake.

AHOLKUAK: elikadura egokia eta merkea eskuratzeko bideak

- Sasoiko fruta eta barazkiak hartu. Merkeagoak izaten dira eskaintza eta eskariagatik. Gainera, zapora eta aroma handiagokoak izaten dira (benetakoak); beraz, ez da beharrezkoa izaten gatza eta koipea gehitzea jakiaz disfrutatzen. Azkenik, jatorrizko bitaminak eta propietateak askoz hobeto kontserbatuko dituzte.
- Ekidin jaki ultraprozesatuak: galletak, opilak, snack-ak, freskagarriak eta aurrez prestatutako platerak dira gehien kontsumitutako ultraprozesatuak, eta gure osasunari ez diote mesede egiten: gatza, azukrea, gehigarriak eta gehiegizko kaloriak izaten dituzte, besteak beste, eta kontrara, ez dituzte osagarriak diren subs-

tantziak (bitaminak, mineralak eta zuntza) edo kopuru txikian izaten dituzte.

- Hobe lekaleetatik proteina jasotzea animalietatik baino: lekaleak oso proteina-iturri ona dira, eta haragia baino merkeagoa.
- Gogoratu hidratatzeko erarik onena ura hartzea dela: freskagarriek, aurrez prestatutako zukuek eta edari alkoholdunek ez dute behar beste hidratatzen (batzuek kontrakoa lortzen dute), eta gainera ura baino garestiagoak eta kaltegarriagoak dira.

GURE BALIZKO ALIATUAK: mugikorreko aplikazioak.

Erosketak egiterakoan, arrakasta handia izaten ari dira mugikorreko app-ak. Alde batetik, dirua aurrezteko, produktu batek supermerkatu ezberdinetan dituen prezioak konparatzen dituztenak.

Bestalde, nutrizioko app-ak, elikagaia osasungarria den ala ez adierazten dutenak, NutriScore sistema (elikadura-konposizioaren arabera nutrizio-semaforoa), NOVA sailkapena (prozesamendu mailaren arabera) edo/eta gehigarri kantitateak kontuan hartuta, besteak beste.

Aplikazio horiek erabilgarriak izan daitezke, baina ez lirake izan beharko gure erabakiak hartzeko irizpide bakarra: izan ere, osatu gabeko informazioa ematen dute eta horrek balorazioak okerrak egitea eragin dezake.





Edukiontzia horira, plastikozko eta metalezko gauza jakin batzuk baino ez

Ontzi arinen edukiontzia, horiari, askok "plastikorako edukiontzia" esaten diote, baina kontuz!, plastiko guztiak ez dira bertara bota behar; plastikozkoak ez diren hainbat hondakin, bestalde, bertara eraman beharko genituzke.



Hortzetako pasta-tutuak, aerosolak, desodorante-poteak, jogurt-potoak eta -tapak, aluminiozko erretiluak, poliespana ("kortxo zuria"), film-papera, aluminiozko papera eta erretiluak, poltsak (zabor-poltsak izan ezik), plastikozko, metalezko eta txapazko tapak eta tapoiak, esne-brikak, zukurako brikak, kontserba- eta edari-latak, plastikozko botilak.



- Plastikozko jostailuak: Garbigunera edo berrerabiltzeko edukiontzira; egoera onean badaude beste aukera bat izan daiteke dohaintzan ematea edo baten bati oparitzea.
- Biberoiak, tetinak, txupeteak: errefusa edo gainerakoen edukiontzira (zabor arrunta).
- Plastikozko tresnak, sukaldarako tresnak: tupper-wareak, bitsaderak, espatulak, kuboak, erretiluak, iragazkiak, kutxak, eskularruak, alfonbratxoak (PVC edo polipropilenoazkoak): Garbigunera.
- Aluminiozko kapsulak: Garbigunera edo dendara.
- Plastikozko boligrafoak: gainerakoen edukiontzira (errefusa).
- Hortzetako eskuilak (plastikozkoak): gainerakoen edukiontzira (errefusa).

Iturriak: Ecoembes eta Bizkairezikla

<https://ecoembesdudasreciclaje.es/contenedores-de-reciclaje/contenedor-amarillo/>
<https://bizkairezikla.garbiker.bizkaia.eus/eu/>

Porotoak eguaztenetan



Guraso euskaldunak izan arren Txilen jaiotako ezagun batek, umetan, hango gaztelania erabiltzen zuen. Etxeko argia pizteko "prende la luz" esaten zuen, eta ahuakatea izendatzeko "palta" hitza zerabilen, indabei, berriz, "porotos" esaten zien. Euskal Herrira etorritakoan, astiro-astiro, beste hitz batzuk hartu zituen ahotan: *enciende la luz*, *aguacate* eta *alubias*. Zer entzun, hura esan. Umeak imitatzaile finak dira. Ikusitakoa ikasten dute eta entzundakoa errepikatu.

Txorierrin, esaterako, hizkera zainduan, asteko egunak esateko ia ez dira entzuten mendebaldeko izenak: astelehena, martitzena, eguaztena... Euskaltzaindiaren Hiztegiak ere jasotzen ditu, eta berba egokiak dira, beraz, bizkaieraz zein batuaz jarduteko. Mendebaldeko izen ho-

riek etxerako, lagunarteko, gertatzen dira sarritan, eta ume askok ezagutu ere ez dituzte egiten.

Hemen ez ditugu poroto edo palta hitzak entzungo, baina... *eltzea* esaten diote askok lapikoari, *trikua* kirikinoari (kirkolatari). *Gaizki* darabilte askok "txarto" ederra ahaztuta. Ondo dago hango eta hemengo hitzak ezagutzea, baina norberarena ahaztu barik. Lasai asko erabil daiteke *hil(a)* berba hilabetea izendatzeko, hori ere batua da-eta: *datarren hilean / hilean-hilean* 'hilabetero'.

Gogoan izan, ETBko iragarki baten, nola aldarrikatzen zuen Xabier Euzkitzek: "Euskararik onena, zeurea". Ez da gogomendio txarra. Erabil dezagun dakiguna, dakigun moduan. Konplexurik gabe.

Berdintasun kontzeptuak



KRISTALEZKO SABAIA:

Emakumeek euren jardun profesionala, soziopolitiko edo bestelakoa garatzean aurkitzen duten hesi ikusezina; hesi horren bestaldean maila handiagoko karguak ikus ditzakete, erdietsi ezin dituztena (Emakunde).


SOLDATA ARRAKALA: Emakumeek eta gizonek jasotzen duten soldataren arteko aldea, alde batera utzita lanaldia, lan-mota eta lanbide-kategoria (Emakunde).

t: Iñaki Olabarrieta eta Jose Angel Mentxaka

Behe Erdi Aroa (XIII.-XVI. mendeak) aldaketa-garaia izan zen Europan. Gu-rean, jauntxoak dorretxeak eraikitzen hasi ziren euren boterea erakutsi, mantendu eta handitzeko. Etxebizitzak izan arren, dorretxeek funtzio militar handia zeukaten, eta euren menpean ia beti izaten ziren ola-errotak, bidesaria kobratzeko zubiren bat, ermitaren bat eta inguruko baserriak. Interesen arabera, ganboatar bandoaren edo oinaztar bandoaren alde jokatzeko zuten, eta ezin konta ahala lapurretak, batailak eta triskantzak sortu zituzten euren artean. Beranduago, dorretxe gehienei goiko alde kendu zieten, eta euren funtzio militarra galduz joan ziren, etxebizitza bilakatzeko.

Txorierriaren baitadibideditugu. Haietako batzuk oraindik harro mantentzen dira; esate baterako, Lezama, Zamudio eta Martiartu leinuek sortutako dorreak. Beste batzuk, aldiz, nahiko desitxuratuta daude; adibidez, Sangroizeko, Asuako eta Ugartetarren dorreak.

Dorre horien guztien artean, Martiartukoa aipatuko dugu. Gaur egun ematen ez badu ere, leku estrategikoan dago, itsasotik, Getxotik, zuzen datorren aranaren buruan. XIV. mendean eraiki zen, eta XVI. mendean, berreraiki; 2,4 metroko hormak ditu. Butroi eta Martiartu leinueen arteko ezkontza baten ondoren altxatu zen; geroago, beste ezkontza baten bidez, Zamudio leinuearekin elkartu ziren Martiartuarrak. Erandioko elizan dauden eskulturak dira horren lekuko. Berriztatu behar den arren, garai bateko itxura ederra mantentzen du Martiartuko dorreak.



Ugarteko dorretxea; goiko aldean, Lezamatarren dorretxea

Dorretxeak



Ibilbide proposamena


Martiartun hasiko dugu 9 km-ko ibilaldia. Dorrearen ondoko San Antonio ermitak harriz grabatutako idazki bat du, eta armaria; bertan Martiartu, Asua eta Getxotarren armak daude. Ermita aurreko bidetik joango gara eta laster, kartel handi bati kasu eginez, ezkerreko lurrezko pista hartuko dugu beherantz.

Aldapa gora amaitzen denean, aurrera egingo dugu, eskuinera 10 metro eginez. Beherantz goazela alde bietan pistak agertuko zaizkigu, baina guk nabarmenetik, zapalduenetik jarraituko dugu. Une batean pixka bat egiten du gora, eta laster beheko errekatxora doan bidezidorra hartuko dugu. Gure inguruetan geratzen diren baso eder


eta magiko eskas horietakoa da; hortaz, lamiaren bat ere agertzen bada, ez gara harrutuko.

Bidezidorren labirintoa da. Ur-putzua pasatu, eta eskuineko bidezidorra hartuko dugu, errekarren bazterretik doana. Jausitako zuhaitzak oztopo direla, ezkerrean egin beharko dugu, eta gora. Alanbresi batera heltzen bagara, zorionak: lortu dugu basotik irtetea. Dena den, labirintoan galtzea ere merezi du.

Alanbretik hurbil bi arte eder ikusiko ditugu, eta haien atzean, alta tentsioko postea. Horra igo eta pista zabalago batekin egingo dugu topo. Eskuinera egingo dugu, Sustatxa etxeetatik igaro eta errepidera heldu; Unbetik Berangora



Sangroniztarren dorretzeko leihoa; goiko aldean, asuatarren dorrea; eta ezkerrean, Martiartuko dorretxea



doana. Eskuinera egin pixka bat, eta ezkerretik datorren lurrezko pista zabaletik jarraituko dugu. Hemen ere alde guztietatik daude pistak, baina guk nagusitik segituko dugu. Goian gaudenean, eskuinetara egin,

eta pista zabalak jarraitu beharrean - basaz eta putzuz beteta egoten da - hartu bidezidorra gorago. Gerrako lubakiak agertuko zaizkigu luzaro; ingurua erre egin zen iaz eta horregatik errazagoa da aztarnak ikus-

tea. Ikurrina ikusten den lekuan Munarrikolanda mendiaren tontorra dago. Buzoia, gerrako lubakiak, gerra osteko bunker handi bat... Ingurua trikuharri-tumuluen lekua da, bosten aztarnak aurkitu daitezke. Gure arbasoek han hilobiratzen zituzten kideak, batek daki zein erritu erabilia.

Bidezidorretik eta azkenean pistatik jarraituko dugu errepidera heldu arte. Hori gurutzatu, eta behera doan bidea hartuko dugu; handik aurrera asfaltoa izango da nagusi. Kiwi-sail handi bat eta ahabi-sail bat pasatuta, Ugarte auzora helduko gara. Desitxuratutako bi dorretxe daude bertan, bat ezkerrean, eta bestea eskuinean; azken hori kartzela moduan erabili zen inoiz. Bidetik jarraitu, eta zirkulua itxi baino lehen bide-bazterrean ikusiko dugu ola-errota izandakoa.

Fernando Lahera, zerbitzu
militarra egin zuen garaian



Fernandoren memoria

Espainiako Gerra Zibilak 1936tik 1939ra bitartean iraun zuen, baina Euskal Herrian bereziki 1937an izan zuen eragina. Hori ondo baino hobeto dakigu Txorierrin, bertan Burdinezko Gerrikoa altxatu zelako. Hainbat lagun hil ziren han, horien artean Fernando Lahera sodupeztarra. Bere alabak, Fernandak, Zamudion eman du ia bizitza osoa eta ia 90 urte pasatu eta gero, aitaren hezurrak jaso ditu, besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren, Gogora Institutuaren eta Aranzadi Zientzia Elkartearen lanari esker.



Fernanda Lahera bilobarekin batera jaso zituen aitaren hezurrak. a: Gogora Memoria Institutua

t: Gaizka Eguzkitza

2022ko martxoan, Aranzadi Zientzia Elkarteak Euskadiko Gerra Zibileko hobi komunik handiena aurkitu zuen Bilbon, Begoñako hilerrian. Jakina zen bertan Gerra Zibilean hildako pertsonak lurperatuta zeudela, gehienak banaka, baina ez zegoen hilobi komun horri buruzko dokumentaziorik. Bertan, 46 pertsonen gorpuzkiak aurkitu ziren, gehienak 42 desagertutako gudari eta milizianoenak. Horietako bat Fernando Lahera Urrutia izan da, Fernanda Lahera Rebollo zamudioztarraren aita. Martxoan, Eusko Jaurlaritzak aitaren hezurrak eman zizkion familiari.

"Aita 1937ko uztailan hil zen, 25 urte zituela, nazionalen armada Bilbora

sartu zenean. Artxandan bertan hil zen; lubakia bisitatu genuen. Esaten da zamudioztar batek planoak eman zizkiela nazionalari eta horrek porrota eragin zuela. Milizianoek alde batetik itxaron zituzten arierioak, baina horiek beste aldetik sartu ziren eta ustekabez harrapatu zituzten. Aita Burdinezko Gerrikoan egon zen, Bilbo defendatzen. Denbora eman nahi zieten

Fernandak ez zuen aita ezagutu, baina bere memoria bizirik mantentzen zuten senideek



Hilobian topatutako aitaren domina

herritarrei Enkarterrira ihes egiteko", azaldu digu alabak.

Fernandak ez zuen aita ezagutzeko aukerarik izan, gerrara joan eta hilabete bitara jaio zelako. Hala ere, aitaren etxean bere memoria bizirik mantentzen zuten senideek. "Aita beti egon da presente, senideek, lehengusuek batez ere, berari buruz hitz egiten zidatelako: nolakoa zen, zer gustatzen zitzaion...". Fernando Lahera UGT sindikatuaren kidea izan zen eta Jean Jaurès batailoian ibili zen borrokan. Bere dominari esker identifikatu ahal izan zen, 77779 zenbakiduna. Ziur asko, eskumuturrari lotuta eramaten zuen. Zerbitzu militarra Afrikan egin zuen eta handik etorri bezain laster Gerra Zibila hasi zen eta frontera abiatu zen. "Ez nago ziur, baina nik esango nuke aita konbentzituta joan zela gerrara. Anaia ere eraman nahi izan zuen, baina zorionez ez zuen lortu".

Milizianoa hil zutenean, familiak nekez lortu zuen informazioa. "Guri inork ez zigun ezer ofizialki esan. Norbaitek, kideren batek edo, heriotzaren berri eman zuen Sopuertako Udalean eta heriotza-agirian jaso zuten granada baten ondorioz izan zela. Eta hori Aranzadikoek berretsi digute, hezurrak aztertu ondoren, burezurra erabat hondatuta zuelako".

Fernanda Lahera, bilobarekin; Zamudion



Enkarterrikoak, harro-harro

Fernanda Lahera Rebollo emakume berritsua da; eta 85 urte izan arren, argi-argia. Tira, "85 urte eta erdi", berak azpimarratu digun moduan. Fernanda Zamudion bizi da, baina familia Enkarterrikoa da, bere esanetan, "Euskal Herriko lekuri politena". "Ama eta amama elkarrekin bizi ziren Santa Kurtzen, Artzentalesen. Eta oporretan beste aitite eta amamaren etxera joaten nintzen Otxaranera. Primeran pasatzen nuen bertan. Aitite eta amama baserritarrak ziren, txakolina eta sargardoa egiten zituzten, eta artoa landatu".

Fernanda pozik eta familiak babestuta hazi zen, baina haurtzaroa ez zen batere erraza izan, garai hartako euskal ume gehienei gertatu zitzaizen moduan. Izan ere, Gerra Zibila izugarri gogorra izan zen eta Gerraostea ere ez zen makala izan. "Amamarekin Turtziozera joan nintzen bizi izatera, amak lan egin behar zuelako: belarra segatzen zuen. Amamak ere egiten zuen lan eta nik laguntza ematen ni-

on: berak oiloak eta arrautzak saltzen zituen Balmasedan, merkatu beltzean, eta ogi zuria erosi. Nik astoa eramaten nuen. Ortua ere bagenuen. Amamarekin harreman berezia izan nuen. Gogoratzen dut gaixorik zegoela errazionamenduaren bidez lortutako txokolatea niri ematen zidala. Izugarri maite genuen elkar".

Ama berriro ezkondu zen eta beste seme-alaba bi izan zituen. Amama hil zenean, Fernanda amarekin itzuli zen. Harrezkero, Txorierrira etorri zen familiarekin bizi izatera, Larrondora, Loiura. "Artzentaleseko medikuak amaren senarrari lana topatzen lagunduzion Zamudion zumegintza-denda batean eta horregatik etorri ginen hona. Eta medikuaren andreak niri ere lortu zidan lanpostua, Bilboko jostun batekin. Garai hartan nagusiagoa nintzen eta jostea izugarri gustatzen zitzaidan". Beranduago, Derion ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituen. Gainera, sukaldari egin zuen lan Zamudioko enpresa batean.

"Espero dut beste hildakoak bilatzen jarraitzea. Eskerrak eman nahi dizkiet gorpuak bilatzen dituztenei"

Fernandoren ama semearen bila eta bila ibili zen, baina alferrik. "Aita gehien bilatu zuena amama izan zen, baina ez zuen semeari buruzko informazio handirik lortu. Nik esango nuke horren haritik jarri zela gaixorik, eta ni gazte-gazte nintzela, 7-8 urte nituela, amama hil egin zen".

Gogora Institutuak

Beraz, Fernando Laheraren arrastoren bilaketa bertan behera gelditu zen. Hala ere, 2017an Gogora institutuak Gerra Zibilean hildakoen senideekin harremanetan jartzeko kanpaina zabaldu zuen eta Fernandak han parte hartzea erabaki zuen. "Amamari buruz pentsatu nuen. Ea berak lortu ezin zuena ni lortzeko gauza naizen, ea aita, azkenean, topatzen dudan". Prozesua oso erraza izan zen, DNA-lagina utzi besterik ez zuen egin behar izan. "Uste nuen nirekin ahaztu egin zirela, baina 2021ean Gogora Institutuko Aintzaneke deitu zidan, aitaren izena zuen domina agertu zela esateko. Medikuan nengoen, Deustun, eta Aintzaneke esandakoak erabat hunkitu ninduen: bakarrik nengoen eta ez nekien zer egin, negar ala barre egin. Zorte apur bat izan genuen: hilobian hainbat gorpu zeuden eta, ziur asko, aita goiko aldean zegoen eta horregatik topatu zuten erraz. Domina ere bertan egon zen".

Deiaren ostean, Fernandak eta familiak gehiago itxaron behar izan zuten, hezurak aztertu behar zituztelako, baina "gutxienez" hilobia topatuta zegoen. Azkenean, martxoan, Aranzadi Zientzia Elkartek eta Gogora Institutuak ekitaldi ofiziala antolatu zuten Bilbon, Eusko Jaur-laritzarekin batera, Fernandari zein beste milizianoen senideei hezurak emateko. Gainera, desobiratze- eta identifikazio-txostena ere jaso zuten. "Gaur betebeharrak bat betetzen dugu, justizia egiten dugu eta memoria historiko eta demokratikoarekin dugun konpromisoari zentzua ematen diogu. Elkarrekin hunkitu eta elkarrekin ohoratzen ditugu printzipio eta balio etiko

"Pozik nago aita topatu izanagatik, baina aldi berean triste, hildako senideak burura etortzen zaizkidalako"

"Galtzaileen gorpuak errepide ertzean utzi behar dira? Eta irabazleenak, mausoleoetan? Popatik hartzera"

"Ez dut inork barkamena eskatzea nahi. Aitaren hezurak badituzte, zertarako ibiliko naiz bazterrak nahasten?"

eta demokratikoak defendatzeagatik bizitza eman zutenak", esan zuen Beatriz Artozabal Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko sailburuak.

"Ez dugu etsiko", gaineratu zuen sailburuak. Eta hori, hain zuzen ere, eskatu du Fernandak. "Espero dut beste hildakoak ere bilatzen jarraitzea. Eskerrak eman nahi dizkiet hildakoak bilatzen dituztenei eta aurrera jarraitzeko esango nieke. Aita topatzeak poza eta lasaitasuna ekarri dit. Eta nik uste dut biktima gehienek gauza bera sentitzen dutela. Batzuk kontra agertzen dira: badirudi, galtzaileen gorpuak errepide ertzean utzi behar direla; eta irabazleenak, mausoleoetan. Popatik hartzera".

Fernanda pozik dabil hain bilaketa luzea azkenean amaitu egin delako, baina apur triste ere bai. "Senideak etortzen zaizkit burura. Amama bila eta bila ibili zen; osabak ere anaia non zegoen jakin barik hil ziren, lehengusuak... Ez dut inork barkamena eskatzea nahi. Zertarako, ba? Aitaren hezurak badituzte, zertarako ibiliko naiz bazterrak nahasten? Gaur egungo erakunde publikoek babesa adierazi didate eta hori nahikoa da. Gogora Institutuan primeran tratatu gaituzte. Sopuertako alkateak eskaini zidan aita bertan lurperatzeko aukera. Eusko Jaurlaritzak ere oso jarrera ona adierazi du. Kexarik ez! Begoñako hilerrira joan ginenean, oso eguraldi txarra egin zuen

eta bertan, besteak beste, Juan Mari Aburto Bilboko alkatea eta Paco Etxebarria auzitegi-medikua izan ziren. Oso adeitsu agertu ziren. Eskerrak eman nahi dizkiet guztiei, izugarritzko babesa adierazi zidatelako".

Aita etxean dute eta hori da garrantzitsuena. Azkenean hezurak erre zituzten eta hautsak etxean ditu alabak. "Handik ez da mugituko, gertu-gertu ditut (kar-kar)". Tamalez, Lasherastarren istorioa ez da bakarra. Gerran hainbat eta hainbat lagun hil ziren eta horietako askok jarraitzen dute identifikatu barik. Eusko Jaurlaritzak eta biktimek adierazi dute bilaketari eutsiko diotela. Bat gutxiago falta zaie.

Txorierri euskeraz, ekin eta ekin 35 urtez

txori tokia



TXORIERRIKO UDAL
EVSKALTEGIA



	B1 Erabiltzaile independentea	B2 Erabiltzaile aurreratua	C1 Erabiltzaile gaitua	C2 Erabiltzaile aditua
Euskaltegiatako ikasleen deialdia	Idazmena: maiatzaren 3tik 6ra Mintzamina: ekainaren 29tik uztailearen 1era	Idazmena: maiatzaren 3tik 6ra Mintzamina: ekainaren 29tik uztailearen 1era	Idazmena: maiatzaren 3tik 6ra Mintzamina: uztailearen 6tik 8ra	Idazmena: maiatzaren 3tik 6ra Mintzamina: uztailearen 6tik 8ra
Deialdi irekia	Idazmena: maiatzaren 3tik 6ra Mintzamina: ekainaren 29tik uztailearen 1era	Idazmena: maiatzaren 3tik 6ra Mintzamina: ekainaren 29tik uztailearen 1era	Idazmena: maiatzaren 3tik 6ra Mintzamina: uztailearen 6tik 8ra	Idazmena: maiatzaren 3tik 6ra Mintzamina: uztailearen 6tik 8ra

Matrikulazio epea: martxoaren 27tik apirilaren 4ra

Informazio gehiago: habe.euskadi.eus



Herriko Plaza, 3 - DERIO



Tel. 94 454 00 62 - Fax. 94 454 27 38



euskaltegia@txorierrri.eus

261.000 euskal hiztun gehiago

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) VII. Inkesta Soziolinguistikoren datuak ezagutzera eman ditu Eusko Jaurlaritzak. Datuak 2021. urtean egindako inkestetan oinarritzen dira, eta haien arabera, gaur egun duela 30 urte baino 261.000 euskaldun gehiago daude; hau da, euskaldunen kopuruak 12 puntuko hazkundera izan du 1991. urtetik hona: 24,1etik 36,2ra. Hamasei urtetik gorako biztanleen % 36,2 da euskalduna; % 18,6, euskaldun hartzailea; eta % 45,3, erdalduna. Sexuari dagokionez, emakumeen % 36,5 da euskalduna, eta gizonen % 35,8.

Inkestaren datuei erreparatuta, euskal hiztunen profila gaztetu egin da azken 30 urtean. Horrela, 16 urtetik 24 urtera bitarteko gazteen % 74,5 da euskalduna; 1991. urtean, berriz, adin-tarte horretako gazteen % 25 zen euskalduna. Gainera, orain dela 30 urte adin-talderik euskaldunena zen 65 urtetik gorakoena, eta gaur egun da euskararen ezagutza apalena duena (% 22,1). "Edozein hizkuntza gutxituren biziberritzean egon litekeen daturik onena da gazte-belaunaldiak euskara ezagutzea: hizkuntza-ordetzkapena iraultzen ari den adierazle nagusietakoa da", esan zuen Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuak datuen aurkezpenean. "Eskolaren eta helduen euskalduntzearen eragina nabarmen sumatzen da datuetan. Gizarteak azken hiru hamarkadetan egindako apustu sendoaren adierazlea ere bada hau guztia".

Euskaldunen igoera hiru lurraldeetan gertatu da. Gipuzkoan dago euskaldun gehien: % 51,8 (bi puntuko igoera, hamarkada batean); ondoren Bizkaian: % 30,6 (bost puntuko igoera); eta azkenik, Araban: % 22,4 (sei puntuko igoera). EAEko euskaldunen % 55,4 bizi da gune soziolinguistiko erdaldunetan edo nahiko erdaldunetan, eta % 44,7 gune euskaldunetan.

Inkestan jaso denez, euskararen erabilera ere egin du gora: biztanleen % 21,9k hitz egiten du euskaraz erderaz beste edo gehiago. Zehatz-mehatz, 6,4 puntuko igoera egon da: 412.000 biztanle, 2021ean; eta 271.121 biztanle, duela 30 urte. Igoera hiru lurraldeetan izan da, baita hiru hiriburuetan ere. Gazteek erabiltzen dute euskara gehien: % 33,5ek;



eta gutxien, 65 urtetik gorakoek: % 16,7k. Biztanleria gehien bizi den gunetan gertatu da igoera, baina erabilerak herri txikietan egin du behera: 9,7 puntuko jaitsiera. "Aldaketa horretan eragina izan du, besteak beste, lurralde barruko zein kanpoko mugikortasunak".

Lehen hizkuntza


Hizkuntzaren erabilera eragiten duten faktore nagusien artean azpimarratu

dituzte hizkuntza-erraztasuna eta harreman-sarea. Hizkuntza-erraztasunaren harira, euskaldunak irabazi diren neurrian, gora egin du erdaraz hitz egiteko erraztasun handiagoa duen euskaldunen kopuruak. Hala, gaur egun, euskaldunen % 44,3k erraztasun handiagoa du erdaraz hitz egiteko (% 37,8 zen 1991n), eta euskaldunen % 27,4k erraztasun handiagoa, euskaraz aritzeko (% 34,6 zen 1991n).

Euskal hiztunen profila gaztetu egin da azken 30 urtean: 16 urtetik 24 urtera bitarteko gazteen % 74,5 da euskalduna


Erabilerak 6,4 puntu egin du gora: biztanleen % 21,9k hitz egiten du euskaraz erderaz beste edo gehiago

Euskaldunen bilakaera. EAE, 1991-2021



Iturria: Inkesta soziolinguistikoa 2021

Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. EAE. 2021 (%)



Euskaldunak irabazi diren neurrian, gora egin du erdaraz hitz egiteko erraztasun handiagoa duen euskaldunen kopuruak

Erraztasunak lotura handia du lehen hizkuntzarekin. EAEko 16 urteko edo gehiagoko biztanleriaren % 18,4k euskara bakarrik jaso du etxean; % 6,5ek, euskara eta erdara; eta % 75,1ek, erdara. Adinari erreparatuta, 16 urtetik 24 urtera bitartekoen % 24,1ek euskara soilik jaso du etxean; eta % 13,8k euskara eta erdara. Gainera, duela 30 urte euskaldunen % 79,3 ziren euskaldun zaharrak, eta ordutik hona pisua galduz joan dira: 31,2 puntuko jaitsiera, hain zuzen. Euskaldun berrien kasuan, aldiz, 22,7 puntuko hazkundera egon da (% 36,9 gaur egun); eta jatorrizko elebidunen kasuan, 8,6 puntuko igoera (% 15,4 gaur egun).

Erabilera-esparruak ere aztertu dira inkesta soziolinguistikoa eta ikusi da "testuinguru formal zein informalean

Familiaren bidezko euskararen transmisioak gora egin du bikote euskaldunetan zein mistoetan

egin dela gora". Udal-zerbitzuetan egiten da gehien euskara (% 27,4); ondoren, lan-kideen artean (% 26,8); eta gero, osasun-zerbitzuetan (% 23,1) eta lagunen artean (% 22,1). Interneten eta gizarte-sareen erabiltzaileen % 19,5ek maiztasun handiz erabiltzen du euskara ingurune digitalean.

Aldeko jarrerak

Bestalde, familiaren bidezko euskararen transmisioak gora egin du bikote euskaldunetan zein mistoetan. Guraso biak euskaldunak direla eta bien lehen hizkuntza euskara dela, seme-alaben % 98k euskara soilik jaso du etxean, eta % 2k euskara eta erdara. Gurasoetako bat euskalduna denean eta bere lehen hizkuntza euskara denean, seme-alaben % 84k euskara eta erdara jaso ditu, eta

% 16k erdara. Guraso biak euskaldunak izanik euren lehen hizkuntza erdara denean, berriz, seme-alaben % 35ek euskara soilik jaso du etxean; % 36k, euskara eta erdara; eta % 29k, erdara. Guraso euskaldunen lehen hizkuntza erdara denean, seme-alaben % 57k jaso ditu euskara eta erdara. Sexua ere hartu da kontuan familiaren bidezko transmisioan: bikote mistoetan, euskara eta erdara transmititzen ditu ama euskaldunen % 49,9k eta aita euskaldunen % 41,7k.

EAEko 16 urteko edo gehiagoko biztanleen % 67 dago euskararen erabilera sustatzearan alde; % 26,3 dago ez alde ez aurka; eta % 6,8 aurka. Euskara sustatzearan alde daudenen ehunekoak 12 puntuko hazkundera izan du azken 30 urteotan. Era berean, biztanleen % 74,7k uste du euskara jakin behar dela Administrazioan sartzeko; % 89,3k, haur guztiek euskara ikasi behar dutela; eta % 49,3k irratian eta telebistan programa gehiago eman behar dituztela euskaraz. Zupiriaren ustez, "Euskararen legeak, gizartearen aldeko adostasunak eta jarritako baliabideek lagundu dute euskararen biziberritze-prozesua positiboa izan dadin. Datuek berresten digute gizarteak euskararen alde egindako apustua sendoa izan dela, eta gaur egun ere sendoa izaten jarraitzen duela".

tik tak

EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria **9€**

T: 94 454 55 55
Bestorrene 5. Behea
48160 DERIO

Familia osoroko kalitatezko arreta, zure esku

Zerbitzu Berriak
Logopedia
Podologia
Klomasajak

clínica dental
ZANDUZ
hartz klinika

Tasariari ataribidea, 8 - Lorja | Antsoaga erakina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 70 54 45
info@dentalezanduz.com | www.dentalezanduz.com

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Tasariari ataribidea, 8-4
413. Inaigra
48160 DERIO

Teléfono eta fax
94 454 02 56
www.arantzaamondarain.com

Bizitzaz betetako miraria

t: Itxaso Marina Ondarroa / a: eragileak

Basoaren ondoko aparkalekuan batu gara Andres Baños derioztarrarekin (egitasmoaren *alma matera*), Juanan Diezekin (Zizegorri Zamudioko mikologia elkarte) eta Eduardo Urturirekin eta Cristian Lertxundirekin (Butroi Bizirik en Transición elkarte). Maldan gora gidatu gaituzte Aiertza basora ailegatu garen arte.

Kontatu digutenez, Aiertza basoak 37 Ha ditu eta bertan dagoen dibertsitatea dela-eta ingurune garrantzitsua da oso. Basoan 30 zuhaitz-espezie daude, hala nola haritz kanduduna, urkia, gorostia, gaztainondoa, artea eta pagoa. Gainera, errearen ibilgailuan zehar daude halitzak, sahatsak, makalak eta lizarrak. Baso gaztea da eta, ziur asko, joan den mendeko 70eko hamarkadan sortu zen, inguruko txilardiak, zelaia eta baserriak abandonatu zirela. Ondoren, Bilboko Udalak eskuratu zuen, hasieran hilerriztat erabiltzeko, eta gero, han udal-mintegia kokatzeko. Hortaz, basoaren ondoan beste 15 Ha daude, eta horietan hazi dira, besteak beste, Virginiako tulipak, Japoniako kameliak, izeiak edo Mexikoko pinu negartiak; guztira 40 zuhaitz-espezie baino gehiago.

Zuhaitzak ez ezik halako basoetan ohikoak diren animaliak ere badaude Aiertzan. Pazientzia izanez gero, eta arretaz entzuten eta begiratzen badugu, hegazti asko aurkituko ditugu bertan: eskinosoa, zozoa, txepetxa, okul berdea, txantxangorria eta txinboa; era berean, baliteke gabiraiak eta urubiak ere egotea. Ugaztunei dagokienez, gehienbat azeriak, basurdeak, orkatzak eta azkonarrak ikusi daitezke basoan. Narrastiak ere badaude, esaterako, zirauna, Seoaneren larrasugea eta musker berdea; eta anfibioak: apoa eta uhandre palmatua. Lekurik heze eta urrunetan arrabioak egon litezke. Bestalde, Aiertzako errekan ezkilluren bat egon daiteke, baina deforestazioaren ondorioz jauzitako lurra eta harriek zail bihurtzen dute bertan bizitzeko. Azaldu moduan, 90eko hamarkadaren hasierara arte karramarroak topatu zitezkeen errekan; halaber, habitat egokia zen bisoi europarrarentzat, Asua ibaitik hurbil dauden gune batzuetan ikusi dena.

Txorierriko eta Uribe Butroeko hiru eragilek indarrak batu dituzte, eta Bizkaiko Foru Aldundiari eskatu diote Derioko Aiertza basoa dagoen lursaila erosi dezan, ingurua babesteko eta suspertzeko. Egitasmoaren bultzatzaileen esanetan, Aiertza basoa biodibertsitate handikoa da eta beldur dira babesik ezak eta erabilera okerrekin ingurua hondatzea ekarriko ez ote duten. Derioko Udalarari ere eskatu diote basoa babesteko. Euren eskutik ezagutu dugu hain baso berezia.



Arriskuan

“Baso misto atlantikoa da, aniztasun handiena duten penintsulako basoetako bat. Egia esan, mirari txikia da, bizitzaz betetako desertu txikia. Oso zaila da halako baso bat Bizkaian topatzea. Orokorrean, gure lurraldeko basoak egoera txarrean daude: txikiak dira eta sakabanatuta daude; espezie exotiko inbaditzaileen mehatxupean bizi dira, baso-monolaborantzaren mehatxupean... Kontrolatu gabeko hondakinek ere asko kaltetzen dituzte gure basoak, baita ingurumenarekiko adeitsuak ez diren hirigintza-jarduketek ere”.

Euren hitzetan, Aiertza basoa egoera onean dago orokorrean. Hala ere, basoa arriskuan ipintzen duten alderdiak daude. “Alde batetik, espezie in-

baditzaileak –gerezioondoak, mimosak, eukaliptoak...– arriskutsuak dira basoaren biodibertsitaterako; bestetik, mintegietako instalazioak abandonatu dira eta, ondorioz, mota askotako hondakinen zabortege bihurtu dira: plastikoa, botilak, latak... Horrez gain, moto-krosean eta quadean ibiltzen dira inguruan, eta Gabonetan gorosti-adarrak hartu ohi dira. Aipatutako arrazoi horien artean, eta eragiten duten sute-arriskua saihesteko, premiazotzat jotzen dugu Aiertza basoa babestea, kontserbatzea eta zentzuz erabiltzea. Gure ustez, oso gune garrantzitsua da eta bere etorkizuna bermatzen duen babes publikoa behar du”.

Hori dela eta, eskaera egin diote Bizkaiko Foru Aldundiari, basoa dagoen partela erosi dezan. “Mendiak erostearen aldeko kanpaina sustatu du



*Basoak 37 Ha ditu
eta bertan 30
zuhaitz-espezie
daude, eta halako
inguruneetan ohikoak
diren animaliak*

babesa jaso du; haien artean daude Gurpide Larrabetzuko ekoizleen eta kontsumitzaileen elkarteak, Ekologistak Martxan, Tximintx Derioko euskara-komunitatea, Emaús, Elgoibarko Baso Biziak eta Sare Berdeak.

Basoan barrena gabiltzala, antzinako baserri baten eta errota baten hondakinak ikusi ditugu. Ibilaldi polita eta lasaia da, zuhaitzen artean, eta arretaz jarraitzen diegu gidarien hamaika azalpenei. Hala ere, mintegia zegoen ingurura hurbildu ahala, zaborra alde guztietatik azaltzen hasi da. Aurreko lerroetan aipaturako erabilera okerren ondorioak ikusi ditugu bertatik bertara: mintegiko instalazioak plastikoz, botilez, kristalez, zaramaz... beteta daude. Azaldu digutenez, pandemiatik ohikoa da lagun-koadrilak bertan elkartzea botiloia egiteko. Festa amaituta, ez dute zaborra jasotzen, eta erakundeek ere ez dute lekua garbitzen; gainera, baten bati otu zaio lekua zabortegizat erabili dezakeela.

Hain paseo polita egin ostean, ingurua horrela ikusteak pena eragiten du benetan. Basoan gidari izan ditugun lagunek esan digute laster garbitze-lan sinbolikoak egiteko asmoa dutela, eta erakundeei eskatuko dietela inguruaren garbiketan parte hartzeko. Ohiko bideen bitartez jakinaraziko dute garbitze-lanak noiz eta zein ordutan egingo dituzten. Bai, Aiertza basoa berandu baino lehen babestu eta zaindu beharra dago.



Aldundiak, lurraldeko basoak handitzeko, eraldatzeko, hobetzeko eta kontserbatzeko. Gure iritziz, Aiertza basoak lekua du kanpaina horretan, izan ere, balio natural nahia du, Bizkaian babestu beharreko natura-guneen sarea handitzeko orduan, kontuan hartzekoa". Derioko Udaleri ere egin diote eskaera, Klimaren eta Energiaren Planaren barruan Aiertza basoa sartu dezan.

Babesa

"Basoa babesteko eta hura zein bere ingurua garbitzeko eta zaintzeko eskatzen dugu. Eskaera basoaren dibertsitatearen eta natura-balioetan oinarrituta egiten dugu, eta erabilera okerren ondorioz eta babesik eza dela-eta etorkizunean hondatu dadila saihesteko". Aiertza basoa babesteko eta hobetzeko eskaerak Txorierriko eta inguruko 24 eragileren

**sarraila-denda
Txorierri**
ADITUAK SARRAILAGINTZAN ETA SEGURITASUNAN

946 038 663
625 100 800
info@sarrajeriatxorierri.com
www.sarrajeriatxorierri.com

Alain Pomposo Zarale
Urkiola, 4 Iorja
48160 Deno

L. LEIZADLA PLAZA 2 (ZAMUDIO)
946 522 857

OAKLAND
ENGLISH

Txantxangorri, 2
ZAMUDIO
946 036 943

Ille-apaindegia
estetika

Beldurrezko filma, autismoa ageri

Euskal Herriko udalerrri batean ume bat agertu da hilik, eta erritu sataniko baten biktima izan den zantzuak daude; herritarrek sorgin bati buruzko antzinako kondaira ekarri dute gogora. Adiskide batek lagunduta, Argikerabaki du hilketaren bere kabuz ikertzea eta argitzea sorginaren edo gizakien ekintza izan den. Hori da azal-azaletik *No vayas por la escalera* pelikularen argumentua, baina funtsean helburu sakona du: gizartea autismoarekiko sentikor bihurtzea, eta, aldi berean, autistei esatea, une batzuk oso gogorak diren arren, haiek ere bizitza bizi ahal dutela.



Informazioa:
asociacionculturalatipica.wordpress.com
Instagram: @asociacionartipica

t/a: Itxaso Marina

Joana Otero zamudioztarra da proiektuaren sustatzaileetako bat. Oteroren seme-alaba biak autistak dira, eta berari ere autismoa diagnostikatu zioten iaz. Duela urte bi Puppy proiektua ipini zuen martxan, seme-alabei laguntzeko txakur bat heztea finantzatu ahal izateko, eta egitasmoaren bidez ezagutu zuen Laura Franco produktorea. Harremanetan egon dira harrezkero, eta egun batean autismoari buruzko dokumentala egiteko aukeraz galdetu zion. Francok Ruben Arnaiz zinemagileari eta gidolariari helarazi

zion proposamena, aurretik elkarrekin lan egin izan zuten eta, eta azken horrek erantzun zuen dokumentala gabe fikziozko filma egingo zutela.

“Dokumentala eginez gero, hura gehienbat autismoarekin lan-harremana edo harreman pertsonala dutenek ikusiko dute, ziur asko; pelikulak, aldiz, era masiboan kontsumitzen dira. Gainera, beldurrezko filma izango da. Zergatik? Bada, gehien kontsumitzen den generoa delako; batez ere gazteen artean. Nahiz eta herrialde ezberdinetan bizi edo kultura ezberdina izan, munduko herritar guztiok gauza bat dugu komunean: bel-

durra. Horri lotuta, komedia frantziarra eta komedia espainiarra, esaterako, oso ezberdinak dira, baina beldurra berdindina da herri guztietan”, azaldu digute. Francok eta Arnaizek zentzua duen zinema egitea dute helburu, eta gizarteari mezua helarazi. “Autista batek egunero bizi dituen egoerak eramango ditugu filmara; eta bizipen horiek beldur-garriak dira, bai. Autismoa da argumentu nagusiaren azpian dagoen mezua eta espero dugu ikusleengan sakon sartzea”.

Publikoa protagonistaren sentimenduen eta beldurren bidez murgilduko da autismoan, Argi autista da eta. Bere bizipenak Oteroren beraren bizipenetan daude oinarrituta. “Ilusio handia dut”, esan du zamudioztarrak. “Kontzientziazio eta aldaketa handiak behar direlako, autistok bizi-kalitate osoa izatea oraindik urrun dago eta. Nire ustez, egitasmoak aldaketa garrantzitsua ekarriko dio jende askori. Izan ere, helburua da, alde batetik, jendea autismoarekiko sentikor bihurtzea, eta bestetik, autistoi esatea itxaropena dagoela eta bizi ahal dugula. Azken hori oso inportantea da, ume autistek kanpotik mezu hau jasotzen dutelako: arazo bat duzue eta dena oso zaila izango da zuentzat. Diagnostikoa helduaroan jaso dugunok, bestalde, zailtasunak zailtasun, etorkizuna dagoela ikusi dugu. Ume eta gazte autistek hori jakitea nahi dut, zeren eta, zoritxarrez, nerabe autisten kopuru handiak bere buruaz beste egiten baitu”.

Bestearen begien bidez ikusteak hainbat egoera hurbiltzen dizkigu eta eragina du gure kontzientzian. “Horregatik, aktore autista batek antzeztuko du Argi. Gainera, pelikula integratzailea izatea nahi dugunez, beste aktore ba-

an jartzeko

tzuk zein langile tekniko batzuk ere autistak izateko asmoa dugu. Hau da, mugak gure lan-ekipotik bertatik gainditzeko ahaleginduko gara, eta halako egitasmo batean lan egin ahal dutela autistek adierazi". Preproduzio-fasean daude gaur egun. "Hau da, aktore bakoitzaren profilak nolako izan behar duen aztertzen gabiltza, baita langileen profilak nolako izan behar duen ere. Harremanetan gaude autistekin lan egiten duen Gasteizko antzerki-eskola batekin; nolana ere, egitasmoan parte hartu nahi duen inguruko aktorerik balego, lasai asko jo dezake gugana".

Finantzazioa

Era berean, finantzazio bila, hainbat ate jotzen hasi dira. "Espainiako zinemak dirulaguntza handiak jasotzen dituela entzuten da askotan, baina errealitatea da ia ezinezkoa dela dirulaguntza eskuratzeko. Momentu honetan buru-belarri gabiltza harremanetan ipintzen, besteak beste, autismoari lotutako fundazioekin, beste izaera bateko fundazioekin, enprekin... ea pelikulari diruz laguntzerik duten. Zamudioko merkatarien elkarteak, adibidez, ahalegin handia egin zuen Puppy proiektuari laguntzeko, eta azoka solidarioa antolatu; bada, oraingo honetan ere hura moduko ekintzak egin litezke, finantzazioari ekar-

Ambost Media

Ruben Arnaiz zine-zuzendaria eta gidoilaria da. Hainbat film labur egiteaz gainera, film luzeak ere egin ditu: *Erial* (2016), *Maleza* (2018) eta *Tantum* (2021). Gaur egun, *Nigromancia* pelikula filmatzen dabil, eta beste proiektu bi ditu postproduzio-lanetan: *Scavenger* eta *Madre Tierra*. Laura Franco, bestalde, hainbat film ekoiztu ditu eta haien artean aipatutako *Maleza* dago. Era berean, produktore-lanetan dabil Kolonbian eta Mexikon, eta epaimahaikidea izan da zenbait festibaletan. Arnaiz eta Franco elkarlanean dabilta Ambost Media produkzio-etxean. Horrek 50 lan baino gehiago ekoiztu ditu, izendapenak jaso ditu 70 jaialditarako baino gehiagorako, eta nazioarteko 21 sari jaso ditu.

pena egiteko. Beste alde batetik, istorioa Euskal Herriko herri batean gertatzen da, baina oraindik ez dugu erabaki zeinetan. Horri dagokionez, udaletara ere joko dugu ea baten batek pelikula bertan filmatzean interesik duen eta modu batean edo bestean lagundu ahal digun. Eta udalak animatu daitezten, gogora ekarriko diegu pelikulek turismo handia ekartzen dutela haiek filmatu diren herrietara".

"Mezu baikorra zabaldu nahi dugu, zoritxarrez, nerabe autisten kopuru handiak bere buruaz beste egiten du eta"

"Pelikula integratzailea izatea nahi dugu: aktore batzuk zein langile tekniko batzuk autistak izateko asmoa dugu"

Pelikula ekaina pasata filmatzen hastea gustatuko litzaieke. "Banaketa-akordioa dugu Mexikoko zine-aretoekin, beldurrezko pelikulek bertan oso ondo funtzionatzen dute eta; akordioa Espainian ere lortzea espero dugu". Geroaren zaleek beste pelikula batzuen erreferentziaren bat topatuko dute *No vayas por la escalera* filmean, esate baterako, *A Nightmare on Elm Street*. "Halaber, autismoaz gainera, beste gai izugarri bat jorratuko dugu pelikulan: hilketak, eta batez ere biktimak umeak direnean". Egitasmo hau eta beste batzuk aurrera eraman ahal izateko, Atipica irabazteko asmorik gabeko elkarte sortu dute. Proiektuan parte hartu nahi dutenek helbide honetara idatzi dezakete: asociacionatipica@gmail.com.

DANONTZAKO IREKITAKO INSTALAZIOAK

- KAFETEGIA •
- 4 PADEL PISTA •
- 2 PISTA ESTALIAK •
- 2 PISTA ESTALI GABEKOAK •
- UDAKO IGERILEKUAK •

"DERION, DANONTZAKO IREKIA PARKE TEKNOLOGIKOTIK 5 MINUTURA"

Gaztañatxu Kalea 16, Derio
www.clublandabari.es

LANDABARRI KAFETEGIA

- EGUNEKO MENUA
- KARTA
- MENU BEREZIAK
- TXULETOI MENUA
- PADELZALE MENUA
- ZAPATU TEMATIKOAK
- ETXEKO POSTREAK
- ARDO KARTA BEREZIA

1:30ko Padel Pista barne

Ta askoz gehiago..

ERRESERBAK : 687 775 683
(Bertan jateko edota enkarguak jasotzeko)

GURE ESKAJNTZA :

Hordagoa, pentsio publikoen eta unib

Martxoaren 13tik 17ra bitartean, Euskal Herriko Pentsiodunen Elkarteak protagonista izan zen Euskal Herriko zein Estatuko hedabideetan, oso ekintza atipikoa egin zutelako Bilbon: bost eguneko itxialdia eta baraualdia. Ekintza amaituta, manifestazio jendetsua egin zuten hurrengo egunean Bilbon bertan. Mugimenduak bost urte daramatza 1.080 euroko gutxieneko pentsioa aldarrikatzen, eta, adierazi dutenez, lehen hordagoa bota dute erakunde publikoen ezezkoaren aurrean; gehiago botako dituzte.

t: Itxaso Marina

Ana Mezo, Garbiñe Etxebarria, Jose Antonio Lekue eta Miguel Angel Lekue "Txirri" larrabetzuarrak eta Benito Gorbea lezamarra dira Euskal Herriko Pentsiodunen Elkarteko kideak. Itxialdian zeudela, José Luis Escrivá ministroak iragarri zuen 2027rako gutxieneko pentsioak 1.200 eurotik hurbil egongo zirela. "Batzuk ailegatuko dira, baina askok orduan ere 800-900 euroko pentsioa jasoko dute. Gainera, hemendik lau urtera, zer? Bestalde, hauteskunde-ziklo baten atarian gaude, eta ez dakigu Madrilen zer gertatuko den. Guk 1.080 euroko gutxieneko pentsioa aldarrikatzen dugu, oraintxe bertan eta 14 ordainsaritan".

2018ko urtarriletik hona, Euskal Herriko ia 80 plazatarara eraman dute aldarrikapena, eta instituzio publiko, alderdi politiko eta sindikatuekin batu dira. Aldarrikapena Madrillgo Kongresuan ere aurkeztu dute. Azaldu moduan, egoera kritikoa da. "Azken igoera % 8,5ekoa izan da, eta horren ostean ere Hego Euskal Herriko pentsiodunen % 30ek, 199.800 lagunek, 800 euroko baino gutxiagoko pentsioa jasotzen dute; horietatik 152.600 dira emakumeak. Era berean, % 39,2k, 279.480 pentsiodunek, 1.000 euroko baino gutxiagoko pentsioa jasotzen dute; haietatik 203.000 dira emakumeak. Bost urteko borroka eta ge-



ro, instituzio publikoek jarraitzen dute gure aldarrikapenari entzungor egiten, eta horregatik ekintza sendoagoa antolatuko dugu martxoan".

Ahal da

Azaldu moduan, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa ez da kapritxoaz aukeratu duten diru-kopurua. "Mugimenduaren barruan, ekonomistek eta abokatuak osatutako lantaldea dago, eta kalkulua egin da datu ofizialak eskuan eta Europako Gutun Sozialaren ildoei jarraituta. Lanak egin ditugu, ondo argudiatuta, eta badakigu aldarrikatutako pentsioa posible dela. Nolanahi ere, azken urteotan bizitza nola garestitu den kontuan hartuta, uste dugu gutxieneko pentsio hori berrikusi beharko dela, eta gaia mahai gainean dugu gaur egun".

Helburu nagusia oraindik lortu ez duten arren, aurrerapauso positibo txiki batzuk ikusi dituzte azken urteotan; esaterako, langile bakoitzeko % 0,6 gehiago kotizatzea edo aurretik aipatutako % 8,5eko igoera. "Dena dela, esan beharra dago erosmen-ahalmenaren % 7 baino gehiago galdu dugula eta igoera egonda ere ez dugula galdutakoa berreskuratu; are gehiago, 2011ko erreformaz geroztik pentsiodunok % 11 galdu dugu. Beste aldetik, lehen, urtarrilean igotzen ziguten pentsioa, baina abenduan pentsio konpentsatzailea ematen ziguten kontsumoko prezioen indizearen arabera; bada, konpentsazio hori kendu digute. Beraz, urtearen amaierara arte itxaron beharko da balorazioa egiteko".

Lerro hauetatik salatu dute komunikaibideen bidez egiten den manipulazioa. "Adibidez, esaten dute Baby Boom

"1.080 euroko gutxieneko pentsioa aldarrikatzen dugu, oraintxe bertan eta 14 ordainsaritan"

ertsalen alde

*“Lanak egin ditugu,
ondo argudiatuta,
eta badakigu
aldarrikatutako
pentsioa posible dela”*

belaualdikoek erretiroa hartuko dutenez pentsioen kutxa ez dela nahikoa izango. Hala ere, inork ez du hitz egiten gastu desegokiak direla-eta pentsioen kutxari egin dioten harrapaketa. Pentsiodunen mugimendukook eskatu dugu auditoria bat egiteko, gauzak garbi izateko eta nondik abiatzen garen jakiteko, bakoitzak botatzen baititu bere argudioak gehien komeni zaion momentua kontuan izanda”.

Historia egiten

Pentsiodunek argi eta garbi utzi nahi dute eskatzen dabilzala lan egin eta ordaindu dutena. Bestalde, euren lorpenak gizarte osoarentzat eta datozen pentsiodunentzat ere izango dira. “Pentsio publikoak eta unibertsalak nahi ditugu eta horiek dira hain zuzen ere utzi nahi dugun herentzia. Kutxa bakarrean sartu beharrean, nahi dugu pentsioak Estatuko Aurrekontu Orokorretan sartu daitezen, saihesteko lehen aipaturako gastu ez egoki horiek; hala nola banketxeak erreskatatzea”.

«Astelehenak eguzkitan» ematen dituzte Euskal Herriko pentsiodunek, eta, aldi berean, historia egiten dabilza. “Ez dugu sinesten kontatzen digutena; gezurra baino ez da. Escribák dio pentsioak berritzeko plana egiten dabilela, baina Europaren gainbegiradapean egiten dabil: Europaren eta sistema finantzarioaren menpekotasuna erabatekoa da”. Txorierritarak ere historia egitera animatu nahi dituzte, herriko plazetara irten eta antolatu daitezen. “Gu, esaterako, Larrabetzun batzen gara hilaren lehen astelehenean, eta gainerakoetan Bilbora joaten gara. Nolanahi ere inportanteena da mugimendua herrietan ikusgai izatea, eta gu prest gaude laguntzeko”. Jubilatua lezioa ematen dabilzkigu gizarte osoari.



Mugimendu bizia

Mugimendu inportantea, bizia eta sendoa lortu dute, Estatuan erreferentea dena. “Itxialdia dela eta, Kataluniako, Mallorcako, Madrilgo, Burgoseko, Galiziako... lagunak etorri dira Bilbora, eta babesa adierazteko bideak bidali dizkigute Andaluziatik”. Kalkuluen arabera, manifestazioan 10.000 lagun inguru batu ziren, hainbat esparrutakoak eta adin-tartekoak. “Gure borroka sakon sartu da gizartean. Izan ere, talde bakarra gara momentu honetan kalean zerbait aldarrikatzen dabilena; gainera, mugimendua osatzen dugun pertsonon adina kontuan hartzekoa da: 80 urtetik gorako lagunak ere plazetan daude”.

Gutxieneko pentsioaz gainera, lortu beharreko eskubide-zerrenda luzea dute agendan idatzita: erretiro-adina 65 urtekoa izatea; alarguntza-pentsioa % 100ekoa izatea; 40 urte kotizatuta, erretiroa murrizten duten koefizienteak indargabetzea; etxean zein zahar-etxeetan adintsuak egoki zaintzea; kalitateko enplegua eta soldata duinak sortzea, pentsioak bermatzeko; eta genero-arrakala ezabatzea. “Zor patriarkala dugu 70eko eta 80ko hamarkadan etxea eta familia zaintzen eskusiboki ibili ziren emakumeekin. Pentsio txiki-txikiak dituzte gaur egun; beharbada, ez dute kotizatu, baina gastua murrizten lagundu dute, instituzioek haiei esker ez zutelako haurtzaindegietan, zahar-etxeetan... gastatu behar izan. Emakume horiek ikusezin bihurtu dituzte urteetan, baina orain asko kalean daude eta, herri askotan, mugimenduaren motorra dira”. Eskubide horiek lortzeko, hainbat ekintza «sendo» antolatuko dituzte datozen hilabeteetarako. Frantziatik ailegatzen diren albisteei ere adi daude, bertako pentsioen sistemaren erreforma dela eta.



Emakumeekin. Pentsio txiki-txikiak dituzte gaur egun; beharbada, ez dute kotizatu, baina gastua murrizten lagundu dute, instituzioek haiei esker ez zutelako haurtzaindegietan, zahar-etxeetan... gastatu behar izan. Emakume horiek ikusezin bihurtu dituzte urteetan, baina orain asko kalean daude eta, herri askotan, mugimenduaren motorra dira”. Eskubide horiek lortzeko, hainbat ekintza «sendo» antolatuko dituzte datozen hilabeteetarako. Frantziatik ailegatzen diren albisteei ere adi daude, bertako pentsioen sistemaren erreforma dela eta.

LEIRE BEGOÑA
ULE-APAINDEGIA
MUNICIALE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32
Jarrai lezugu Facebooken

ELORRIETA
INSTALACIONES
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
Urbe kalea, 12 beheko Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47



Ikusten nauzu?



t: Joanes Camara, gizarte-teknikaria

Emaús Gizarte Fundazioaren baitan, askotan ikusezina dirudien gizartearen talde batekin egiten dugu lan PAI Bitartean zerbitzuan. Zehatz-mehatz, hainbat arrazoi tartean, gizartetik kanpo dauden edo gizartetik kanpo egoteko arriskuan dauden pertsonen ari naiz. Gure lanaren zati bat da gizarteari ikusaraztea arazo bat dagoela eta arazo horri aurre egin behar diogula. Horrela, egunero laguntzen diegun pertsonak ikusgai egiteko, proiektuak eta ekintzak garatzen ditugu.

AIKOR! aldizkarian irakurtzen zabilten artikulua hau da adibideetako bat. Beste adibide bat da Ganbara Gizarte Irratia

podcast-a, zeinean Derioko eguneko zentronen erabiltzaileek esperientziak partekatzen baituzte YouTube, Spotify eta Soundcloud plataformen entzuleekin. Askoz adibide gehiago daude, baina lerro hauetatik azpimarratu nahi dugu amaitu berri dugun egitasmoa: gure erabiltzaile batzuetako testigantzak grabatzea. Elkarbideak eta Bizkaiko Foru Aldundiak diruz lagundu diote egitasmoari, eta helburua izan da pertsona horien bizipenak eta aholkuak partekatzea, ulertu dezagun haiek ere gizartearen parte direla eta, gainerakook bezala, begirunea eta tratu duina merezi dutela.

Lehenengo eta behin, gure zentrorra etortzen diren pertsonen eman genien

egitasmoan parte hartzeko aukera, euren egoera ikusgai egiteko eta euren bizitzari, gustuei eta zaletasunei buruz hitz egin zezaten. Baita euren testigantza entzuten zutenei mezua helarazi ziezaieten ere. Batzuek atsegina handi onartu zuten proposamena. Hala ere, hizpide oso kontu pertsonalak izango zituztela kontuan hartuta, Derioko eguneko zentronen psikologoarekin prestatu zituzten galderak eta erantzunak. Egia esan, hasieran zalantzak agertu zituzten arren, parte-hartzaileak erabat motibatuta sentitu ziren, gazteei eta egoera zail batean egon zitezkeen jendeari diskurtso argia helarazteko.

Hortaz, Aritz Albaizar ikus-entzunezko produktoreak lagunduta, *Ikusten nauzu?* lana egin dugu. Ikus-entzunezko lana da eta hala eskatzen duten ikastetxeetan ikusi ahalko da. Era berean, PAI Bitartean zerbitzuak parte hartzen duen hitzaldietan eta heziketa-saioetan ere erabiliko da. Parte-hartzaileek bihotz-bihotzetik hitz egin dute eta hori ez da erraza izan; lana ikusi ahal izan dugunontzat, bestalde, oso hunkigarria eta hezigarria izan da.

Amaitzeko, espero dugu egitasmo hau eta beste batzuk lagungarriak izatea gizartea sentikor bihurtzeko eta, pixkanaka-pixkanaka, gizartetik kanpo dauden edo gizartetik kanpo egoteko arriskuan dauden pertsonak gure artean gero eta ikusgaiago izateko.

t: @txiribita_kosmetika

Calendula officinalis. Gure paisaian alde guztietatik ikusi dezakegu hilerrililia. Urtebeteko bizitza duen landarea da, eta bi arrako garaiera du. Adarrak ditu, eta hostoak; azken horiek berde argi kolorekoak dira, eta apur bat iletuak. Loreak landarearen goiko aldean jaiotzen dira, eta laranja kolorekoak dira. Ornamentazio-landare moduan ipintzen da lorategietan, ortuetan eta lorontzietan. Bestalde, basoko lorea landatu dena baino txikiagoa da. Lore irekiak eskuz jaso behar dira, eta gerizpean sikatzten ipini, euren kolorea eta propietateak mantendu ditzaten.


Sukaldean

Azafraien ordez, lore-hostoak erabili ditzakegu arrozari kolorea emateko. Era berean, erabili ditzakegu entsaladak egiteko, zopak, gailetak, karameluak eta likoreak: kolore bizi-bizia ematen diete.

Propietate sendagarriak

Hilerrililiak propietate orbaintzaileak ditu eta digestioari laguntzen dio. Hilekoa etortzen laguntzen du, eta gibela garbitzen. Halaber, lagungarria da barneko gaitzak arintzeko, hala nola gastritis, urdaileko ultzera, hileko mingarriak eta udaberriko depresioak (infusioa). Azaleko gaitzak arintzeko ere bada lagungarria, esterako dermatitis, barizeak, zauriak, bihurrituak eta ebakuntzek eragindako hanturak (olioa ipini, tinturak, konpresak edo baltsamoak).

Hilerrililia



a: Damir (www.pexels.com)

Erabilera kosmetikoak

Loreak erabiltzen dira xanpuak, xaboiak, pomadak eta kremak egiteko. Bere olio oso gozosa da eta horregatik erabili dezakete edozein adinetako pertsonak; ume txiki-txikiek eta adintsuek ere bai. Azal sentikorretan eta narrituetan ezarri daiteke eta, hortaz, lagungarria da psoriasis eta ekzemak arintzeko. Halaber,

propietate orbaintzaileak eta hanturaren kontrakoak dituenez, erredurak arintzen laguntzen du. Azal helduek eta sikuek ere atseginez hartuko dute prestakina, leuntasun eta elastikotasun handia ekartzen duelako; horregatik, haurdun daudenentzat ere egokia da. Olio prestatzeko, flasko baten bi heren lorez beteko dugu, eta gainerakoa olio. Hamabost egunetik hogeita hamar egunera bitartean utziko dugu mazeratzen, eta egunean gutxienez behin eragingo dugu. Iragazi, eta leku ilun batean gordeko dugu.

Ortuan

Bizitza laburreko landarea izanik, hobe da ortu osoan landatzea; beste landare batzuei onura ekartzen die, adibidez tomateei, orburuei, indabei eta zalkeei.

Bitxikeriak

Calendula izena latinetik dator, *calendae* (egutegia) hitzetik hain zuzen, hilabete bakoitzeko lehen eguna adierazten duena. Izena landarearen loraldiari dago lotuta; loraldia ia urteko hilabete guztietan izaten da.

Landareak batzeko aholkuak

Orokorrean: hartu ondo ezagutzen duzuna; hartu neurritz eta soilik lekuan asko badaude; ez eraman dena, utzi beti zerbait; hartu bakarrik erabiliko duzun landarearen zatia; ez atera sustraitik, moztu ondo hazten jarrai daitezen; ez moztu loreen % 20 baino gehiago, zuhaitzak edo zuhaixkak badira; hartu bakarrik erabiliko duzuna, geroago itzuli ahal zara, edo beste leku batzuetara joan; ez jaso gune babestuetan edo parke naturaletan.

Non: larreetan eta autorik pasatzen ez den bide-ertzetan; goldatu gabeko basoetan; toxikorik erabiltzen ez den ortuetan eta lorategietan; INOIZ EZ areketan, fumigatutako landetan eta ibaiertz kutsatuetan.

Noiz: goizean, ihintza sikatu ondoren; hartu hostoak erabiliko ditugun egunetan bertan; hartu loreak goizean eta sustraiak arratsaldean; landareak gorde edo sikatzeko, hobe da ilbehera denean jasotzea.

Materialak: eskularruak, artaziak, paperezko oihalezko poltsa, zumezko saskiak...



Material berriak

t: Xabier Díaz / a: www.csic.es

Kobrea, nikela, kobaltoa, litioa eta platinoaren familiako metalak (bestek beste, platinoa bera, rodioa eta paladioa) ezinbestekoak dira egun, ibilgailuen eta beste gailu batzuen bateriak egiteko. Hidrogeno berdea lortzeko behar diren elektrolizadoreen gakoak ere platinoan dago. Estainu, indio, galio, banadio, teluro edo molibdeno barik ez genduzki-plakarrik izango; eta zer esanik ez, silizioari buruz. Era berean, aerosorgailuek erabiltzen dituzten imanetan beharrezkoak dira neodimioa eta "lur arraroen" taldeko beste elementu batzuk.

Aldaketa klimatikoari aurre egiteko estrategietako bat da erregai fosiletatik

energia berriztagarrietara pasatzea, baina horrek ere arazoak ditu. Aipatutako elementu gehienak urriak dira eta oso leku gutxitan izaten dira. Gainera, elementu horiek prozesatzea konplexua eta garestia da, eta energia handia kontsumitzea ekartzen du. Konponbidea topatzeko, material berrietan ikertu behar dugu, baina ez edonola.

Senentxu Lancers da Materialen, Aplikazioen eta Nanoegituren Euskal Zentroaren (BCMaterials) zuzendari zientifikoa. Bere esanetan, garai batean, material berri bat garatzeko, hura berezia egiten zuten ezaugarriak bilatzen ziren: errendimendu hobea, miniaturizazioa, kostua murriztea... Egun, jasangarritasuna ere hartzen da kontuan:

Kontua ez da bakarrik material berriak topatzea: egokiak eta jasangarriak ere izan behar dira

lehengaien kostu energetikoa, eskuragarritasuna, biodegradagarriak diren, bererabili daitezkeen, ondo birziklatu... Beraz, kontua ez da bakarrik material berriak topatzea: egokiak eta jasangarriak ere izan behar dira.

Bideko proiektuaren kidea da BCMaterials. Egitasmoak guztiz biodegradagarriak diren bateriak sortzea du helburu, eta dagoeneko hasi dira paperez egindako bateriak batzuk garatzen. Adibidez, FlowER bateriak ditu sustraiak, zurtoina eta hostoak, eta bere fluidoaren sistemen bidez imitatu dezake landare baten bizi-zikloa. Bestalde, nekazaritzan erabiliko diren sensoreak elikatze gai izango da, eta, guztiz biodegradagarria denez, bere bizi-zikloa amaitzean ez du hondakin arrisurtsurik utziko.

CIC Energiguneren ere hainbat proiektu interesgarrietan dabilta. Esaterako, baterietan litioa erabili beharrean –urria dena–, gatz arruntaren sodioa erabiltzen duten bateriak garatzen dabilta.

Rodioaren erreserben % 80 Hego Afrikan dago, eta haziz joaten den arren, urtean bakarrik 30 tona ekoizten dira; urtean 3.000 tona urre inguru ekoizten dira, hala ere. Nikelaren munduko erreserben % 22 Indonesian dago: kromoan eta estainuan aberatsa da, eta orain dela gutxi adierazi dute espazioak etetea asmoa.

Erabaki politikoak eta pertsonalak tartean, ikerketa da aipatutako metalekiko dugun mendekotasuna ekiditeko eta etorkizun jasangarriago baten bidean ipintzeko gakoetako bat, zalantza barik.

aldekone
hartz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

- Especialitate guztiak zentro bakar batean
- Aurrekontua duan
- Especialitatea: umeak

Urbe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Hartz-klinika
IDOIA ZUBIETA

Osasun-zentroa & Hartz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Areitza doktorea, 11. - 1. ezk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Urbe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370



Kolorea paisaian

Zamudioko etxe hau bere koloregatik nabarmentzen da paisaian; gainera, suerterik badago, batzuetan animaliak daude ondoko zelaietan. Ingurutik bizikletaz pasatzen naizenean, oso gustuko dut estanpari begiratzea. Hainbeste, ezen estanpa argazki-kameraren objektiboaz harrapatzeko irrikan nengoan.

Argazkia: Alex Albarrán



HARATEGIA
ALBERTO
Arbolantxa, 4
Tel.: 944 520 825
48170 ZAMUDIO

GORBEIA MERTZERIA



Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 08



SARRIKOLA
OGITEGIA

Euskal pastela
Basemko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84



AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburubata:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behea
Zamudio
944 520 419

RPS: 184/10



TIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

Muskuiluak saltsa berdean



Osagaiak (lau lagunentzat):

- 900 gr muskuilu
- 4 patata ertain
- 2 berakatz-atal
- Tipulina bat
- Koilarakada bat irin
- 100 ml txakolin
- Oliba-olioa
- Kaien piperrin bat
- Piperrautsa, gatza eta perrexila

Prestatzeko era:

Muskuiluak egosiko ditugu, eta salda gorde. Patatak ere egosiko ditu-

gu 30-35 minutuan. Berakatzak eta tipulina zurituko ditugu, dadotan moztu, eta oliotan sueztituko ditugu 5 minutuan eta su motelean. Ondoren, kaiena eta irina gehituko ditugu, eta sueztitu. Txakolina botako dugu eta irakinaldi bat emango diogu. Salda gehituko dugu, eta 5-6 minutuan egingo dugu. Kaiena kendu, eta perrexila gehituko dugu. Muskuiluak saltsa berdean sartuko ditugu oskoletako bat kenduta. Bestalde, patatak xerra loditan ebakiko ditugu eta ganean muskuiluak eta salda ipiniko ditugu. Perrexila erabili dezakegu apaintzeko.

Pasta gainerrea, ilarrekin

Osagaiak (4 pertsonentzat):

- 400 g pasta ("tibueroiak")
- 300 g ilar izoztu
- Kipula bat
- Bi urdaiazpiko-xerra
- 300 ml tomate-saltsa
- 100 g gazta arraspatu
- Oliba-olioa
- Gatza
- Oregano apur bat
- Perrexila

Prestatzeko era:

Kazola batean ura berotuko dugu. Irakiten hasten denean, ilarak gehituko ditugu, gatza bota, eta 12 minutuan egosiko ditugu; uretatik atera, eta gordeko ditugu. Beste kazola batean hiru koilarakada olio berotuko dugu. Kipula zuritu, dadotan moztu, eta kazola horretan 8-10 minutu inguru egingo dugu; gatza botako dugu. Urdaiazpikoa ere dadotan ebakiko dugu, eta kazolara bota. Oreganoa, tomate-saltsa eta ilarak gehituko ditugu, eragin, eta bost minutuan egingo dugu. Bestalde, pasta 7-9 minutuan egosiko dugu. Urtetatik aterako dugu eta saltsari gehituko diogu; ondo eragingo dugu. Nahasia laberako erretilu batean ipiniko dugu eta gaintetik gazta hautseztatuko dugu. Labean 4-5 minutu inguru izango dugu, gazta gainerre arte.

Centro Dental
Txorierrri

Rocío Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759

Ainhoa Rodríguez Mella
Col. nº 48001337

Igone Nieto Hernández
Col. nº 48001462

Mitxine 7. behean - 48150 Sondika
(geltoki aurrean)
Tfno.: 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885
www.cdtxorierrri.es

ORTODONCIA21

PATXI
KOOP

IRAN KOOPERATIBA ELKARTEA
Larrialdi-garapena | Txosten 4, 48100 Zarautz (Bizkaia) | Tel: 944 122347 | irko@patxi.coop | www.patxi.coop

ZAMUDIO
Loteria Nacionala

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

ZAMUDIO-DERIOKO
LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

Umeen txokoa: bost desberdintasunak

Ezetz bost desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu. a: www.onlykidsonly.com



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

–Baseria (h)uz(s)-ten (Erein), Oskar Gaztelu.

–Ni ez naiz hamalau: sonetoak (Aztarna), Karlos Linazasoro Izagirre.

–Lurraz beste (Txalaparta), Garazi Arrula Ruiz.

–Hautsi da anphora zuzenean (Pamiela), Bernardo Atxaga. Musikaria: Ruper Ordorika. (LIB+CD).



LITERATURA: GAZTEAK

–Josi eta josi (Txalaparta), Itziar Moreno.

–Arrain hezur bat eztarrian (Elkar), Olatz Mitxelena Larreta.

–Egun euritsu eta loretsu batean (Pamiela), Carme Sole Vendrell.

–Anker (Harriet ediciones), Rashid Khalidi. Ilustratzailea: Alex Macho.

Sudokua

		5				7		8
								1
					3			7
		1	4		8			2
					6	2	4	
		5				3		4
2				5		7		6
6		7			8	1	2	

3	5	2	1	8	6	7	4	6
6	9	8	7	5	4	3	2	1
4	7	8	6	9	5	8	2	3
1	4	7	3	2	9	6	8	1
8	1	2	4	6	7	9	5	3
5	3	7	6	2	4	8	1	9
2	5	8	3	1	4	9	7	6
9	7	6	5	9	3	2	4	8
1	6	7	4	5	9	8	3	2
2	9	6	7	4	5	9	8	3
4	9	5	2	1	6	7	3	8



Zure taxi, Teorissikoa

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Lolu

24h 94 480 09 09

ERRESERBAK:

www.taxi.aeropuertobilbao.com

DESCARGA APP-A



TAXI FEMADE

Alaia

fruta-denda

Etxez etxeko zerbitzua
Bertoko produktua

Talleri, 5
48170 Zamudio
946 850 585



Azoka

Zamudio

- > Erabilitako liburuen azoka. Apirilaren 23tik 30era, Gaztestazioan.

Erakusketak

Sondika

- > Ikastaroetan egindako margolanak: apirilaren 3tik 28ra, erakusketa-aretoan.

Hitzaldiak

Larrabetzu

- > Literaturaz Berbetan: *Miñán* lana, Amets Arzallusen eskutik. Apirilaren 27an, Anguleri kultur etxean.

Ikastaroak

Sondika

- > Xakea. Apirilaren 28an, gaztetxean.
- > *Scrapbooking*-a. Apirilaren 29an eta 30ean, gaztetxean.
- > Udal-ikastaroetan izena ematea, apirilean, 944 535 171 telefono-zenbakira deituta.
- > Areto-dantzak, patinajea eta sendaberrak. Izena ematea: apirilaren 11tik 19ra, liburutegian.

Larrabetzu

- > Patchwork. Izena ematea: apirilaren 17tik 21era, Anguleri kultur etxean.

Ikuskizunak

Zamudio

- > Ipuin-kontaketa musikatua, Ameli eta Iratiren eskutik. Apirilaren 22an, 11:30ean, liburutegian. Hiru urtetik gorako umeentzat. Izena eman behar da.

Larrabetzu

- > Zinekluba: Aitor Oñederraren lanak. Apirilaren 18an, 19:00etan, udaletxeko batzar-aretoan.



Ibrahima Balde eta Amets Arzallus, *Miñan* liburuaren aurkezpenean. a: Andoni Canellada (Alea aldizkaria)

Musika

Larrabetzu

- > Domekak Hori Bain: Peru Galbete. Apirilaren 16an, 18:30ean. Sarrera: 10 euro.

Txapelketak


Sondika

- > Scattergories. Apirilaren 21ean, gaztetxean.
- > Sondika pintxotan: pintxo librea. Apirilaren 15ean, 20:00etatik 22:30era.
- > Balkoi apainduen lehiaketa. Izena ematea: apirilaren 17tik 28ra, liburutegian.

Bestelakoak

Lezama

- > Aste Santuko ekintzak, ludoteketan eta gaztetxean. Apirilaren 3tik 15era.
- > Udaberriko festa. Apirilaren 22an, 21:00etatik 23:00etara, gaztetxean.
- > Dantzaldia, Duo Jamaikaren eskutik. Apirilaren 29an, 18:00etan, Erretiratuen Etxean.



Peru Galbete. a: Noau! aldizkaria

Zamudio

- > Benidormera bidaiaren izena ematea: apirilaren 5era arte udaletxean edo udal-aplikazioaren bidez.
- > "Uda gaztea" bidaiaren izena emateko epea: apirilaren 6ra arte, Gaztestazioan.
- > Gaztestazioak Aste Santurako antolatutako ekintzetan izena ematea: apirilaren 2ra arte.
- > Herri-ortua. Apirilaren 21ean eta 22an, 18:00etan, Gaztestazioan. Izena ematea: apirilaren 20ra arte.
- > Udaberriko festa. Apirilaren 29an, 20:00etatik aurrera, Gaztestazioan.

Larrabetzu

- > Liburuaren Eguna ospatzeko ekitaldiak: apirilaren 21etik 27ra.

TXORIERRI
Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 SONDIKA
944 711 282
info@inmobiliariatxorierrri.com

yedra
floristas

Mikel Zarate, 2 · 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 · yedrainterflora@hotmail.com

Ale-apaindegia

M^a Antonia Llodio TOP

Txorierriko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

aikor!
txorierriko aldizkaria

Konekta zaitez gurekin!



Parte hartu aikor.eus webgunean

Zure argazkiak eta albisteak bidali



E-posta:
aikor@txorri@aikor.com



WhatsApp:
688 86 41 35

XX. txakolin eguna 2023

apirilak 2

-larrabetzu-

12:00etan brindisa

Antolatzailea:



Laguntzaileak:

bbk 



Erositako kopa bakoitzeko
1 € BIZKARGI dantza taldearentzat izango da